

Joxe Austin Arrieta

Terra Sigillata



Azala eta bildumaren diseinua: Esteban Montorio
[3. orriko argazkia Jose Agustin Elezgarai]

Argitaratzea:

Editorial Txalaparta E.M.
Navaz y Vides 1-2
78. Posta-kutxa
31300 Tafalla
NAFARROA
Tel. 948 70 39 34
Faxa 948 70 40 72
txalaparta@txalaparta.com
www.txalaparta.com

Lehenengo edizioa

Tafalla, 2008ko otsaila

Copyright

© Jose Agustin Arrietak
© Txalapartak

Diseinu grafikoa

Monti

Inprimaketa

RGM

ISBN

978-84-8136-510-8

Lege gordailua

BI-414-08



RE-SCRIPTUM

«IKARAGARRIZKO NAGIA SENTITZEN DIAT, Jon, iazko maiaztzean, *ex abundantia cordis*, arrapaladan idatz-minduriko “Getarian Ketari” honetara itzultzean. Ahots-baso oihartzundua, betiko legez. Baina ni neu, beti ere, hirekin buruz buru, apokrifoki mintzo. *Katuak ganbaretan lo daudez*, zioen, behiala, herri honetako poeta on aspaldi isildu hark, gogoratuko haiz...».

—Zer habil, baina, Jagoba? Zergatik hasi haiz Andoniren gutun horrekin? Horiek franko geroagokoak dituk... —kargu hartu dit, aldamenetik, Joxan Arrilaga zenak, Schiffbrüchig Bigarrenak. Ez diot erantzun. Badakit bakarrik nagoela. Badakit bakarrik nagoela sinetsi behar dudala. Jarraitu dut koaderno bustitik irakurtzen:

«Halaxe zaudek, bada, nireak ere oroimeneko pasarteotan kiribilkatuak, kiribil-katuak, kiribil-malenkoniatuak: barka, arren, hitz-jolasetarako betiko nire mania, mamiari ezin eta durundiari beharko ekin. Nonbaitetik, nolabait. Urtero egin ohi diagu. Aurten —iaz dagoeneko—, —«ez: duela bi urte ia» marmartu dut irazean—, Getarian

antolatu genian, ziaten hango lagunek. Maiatzean. Martxoaren 22ko —«Zein martxo?, 2006koa, noski: zehaztu egin behar diat», ahapekatu dut neure artean —*Krieg beendet kapitulieren* artean fresko, artean ez-zimel. Badakik zertaz ari naizen. Askotan bidali izan diat, bai gutun-erian bai gutun-egian, ikaskide-ohion urteroko juntadizoari buruzko makina bat kronika autoplagiante. Bazirudik, azken finean, *grotescas conversaciones de sobremesa*, beste ezertaz ez dakidala idazten, nonbait».

—Begirok —xuxurlatu dit aita zenak, urrunxeagotik, Schiffbrüchig Lehenak. Baina ez dut begiratu nahi. Zeri begiratu behar diot, aita. Gure hitz-ontzi Seneko Zuloan hondoratuari? Horri begiratzea nahi duzu?... Ez. Badakit aita ez dagoela hemen. Badakit hemen ez dagoela jakin behar dudala. Aspaldi hila da, duela hogeita hamazazpi urte. Jarraitu dut, hondoramendutik salbatu ahal izan dudana —eta berari helduta ni ere labarpeko hondartza uharritsu honetaraino iritsi ahal izan naizen— kaxa bakarreko koaderno busti honetatik, eskura etorri zaidan lehenengotik, irakurtzen:

«Bitxia duk —nahiz eta batere harrigarria ez— gure el-karrizketen gaiak nola joan diren bilakatzen urteetan barrera: norberaren osasunari buruzko disertazioek, kontsultek nahiz komentarioek hartu ditek, nabarmen, protagonismoa, taldean ditugun bizpahiru medikuen desesperaziorako, imajinatzen diat. Batez ere, Iñaki Elustondo —“*Ahal-dan-ondo-en*: hirea bai dela benetako bokazioa”, esan ohi zioat —, Poliklinikako kardiologo ospetsua, eta beti hain mutil —gizon— atsegina izan dena —gurekin

behintzat—, hor ibiltzen duk denoi aholku, denoi errezeta, denoi hitzordu ematen. Aurten ere..., baina ez, ez diat giro-pintzeladatan jarraitu nahi. Esana aski izan bedi. Zuzenean, hariari tenk. Aurtengoa –iazkoa, “hots, duela ia bi urtekoa” ñabartu diot neure buruari—, ohiko para-osakidetza kontsultorioaz eta estudiante-garaiko anekdotarioaren errepasso liturgikoaz gain, aspaldiko partezko gonbertsaziorik, nola esan, *saturrarandarrena* gertatu baita. Edo gertatu baitzen, hobe esan: duela bederatzi hilabete (“ez, Xabier, ez, Ander, ez, Andoni, ez, Mikel, ez, Kepa...: dagoeneko ia bi urte”, ahakartu natzaio neure golkoari, nire niaren mamu ezpalduei, hor, itsasoan, agian behin betiko, hondoratuei, ohiko antsiaz nahiz ezusteko erruki minberaz mintzo), ene, zeinen fite, zeinen aise, zeinen antzu. Saturraran. Sator-Haran».

—Ez giozek, ba, handikan oso aparte, ez al zaik iruditzen, lagun gazte? –aitaren ahotsa durundi: hor daude, labarpeko haitz horretan eserita, Joxani ari zaio, mutrikuera noski. «Honen transkripzioa euskara baturatu egin beharko nitek», ohartarazi diot neure itzalari, mekanikoki, estupidoki. «Ni gazte? Zakurraren bioline, nagusi! Estimatus dago, baina Josafateko Zelaian adinik ez: sasoi da behar dena, sasoi, eta zuk nire aldean...», Joxan lagun zaharraren ahotsa: ohiko zirtoak, ohiko solasak, ohiko maitazarre-ziriak, ene bi Urikaldu kutunok, Schiffbrüchig Lehenak, Schiffbrüchig Bigarrenak.

Baina ez, Jagoba. Ez zaudek hemen. Hire eldarnioa duk. Parte onekoa, kasu honetan. Baina eldarnio, nolana ere. Hizketan ari dituk, baina ez zaudek hemen. Ez

duk deus ere transkribatu beharrik. Jarrai ezak irakurtzen...

—Arrazoi duzu, nik uste. Zuk nik baino hobeto ezagutzen dituzu gure itsas bazterrok, baina nik ere traza hartua diot, hau ez ote den Zumaia ingurua-edo –Joxanen erantzuna, eta *flisch* gora, eta *flisch* behera, hamaika esplikaziotan katramilatu zaio segidan, harri-geruzazko liburuaren interprete, eta meteorittoa nola jausi zen, eta eguzki-argirik ezean sekulan izan diren animaliarik azkarrenak ere nola hil ziren, eta nola... «Alajainkua, zenbat dakiken, txo» –diotsa tarteka aita zenak– «asko leittu deken seinale», «bai, zera, zakurraren bioline, nagusi» –erantzuten dio Joxanek, beti berdin, bere ditzosozko exabrupto goi-nafar hori, euskara batuan trans..., ez, honek ez dik zentzurik, Jagoba, segi ezak hirean, koaderno bustiok berantolatzen, motxilan ongi apailatzen, sokak, pioleta, kranpoiak, iltzeak, mailua, pentsa ezak eskalatu egin behar duala labar hau, *Terra Sigillatara* egin behar duala enegarren eta ailitz azken inkurtsioa, «zure aldean ezjakin hutsa ni, zer uste duzu, bada», eta abar, eta abar, kalaka atergabea entzuten ditut, ordea. Bai. Hala da. Eta hala behar du, ziur aski. Jakina: hain parte onekoak ez balira, aspaldi iraitziak nituzkeen «zazpi destatuz urrun» arima erratuok, baina ezin. Nola isilaraziko ditut, horratik, nor eta aita zena, eta inoiz izan dudan lagunik handienetakoa, handiena behar-bada. «Utz egiek euren artean hizketan, eta segi ezak heurearekin». Ados. Halaxe egingo dut. Ez dirudi baxtereholku txarra. Neure (a)buruari jarraitzea, hori-

xe onena. Segi dezadan, beraz, irakurtzen, Lore-Mapa busti erreotatik badaere, besterik ez daukat-eta, hil dira, ito dira nire Urpekontziko Eskifaiakide guztiak, eta Hitzaz Mendiko auzolankideak ere bai, eta apika... Baina, gero gerokoak, Jagoba. Oraingoaz, irakurri, besterik ez:

«Hirurogeitik berrogeita hamarretik baino hurbilago-ko aiton-koadrila, eta hamabi-hamahiru urteko mutil kozkor gineneoak gogoan, nostalgia karamelotuaren aipagai ziklotimiko betikoak. *Senatus Vasconum*, Jon, *Senectus Vasconum*. Hi falta, lastima, urtero esaten diat gauza bera, *in mente*, behinik behin. Hik ezin izan duk inoiz etorri, 80.enetan hasi gintuan-eta urteroko bazkari-lege honekin, eta ordurako hi auskalo non ote henbilen. Hasi ere, emazteekin batera hasi gintuan joaten, badakik, baina ohitura hark ez zian pare bat urte ere irauin: zertarako pairarazi emakume sano asko batzuei apaizgaikume-ohi batzuen oroitzapen delikueszente adoleszenteen aharrasikeria. Sinn Fein, beraz, gu-haur bakarrik, geroztik hona».

«Aurten. Iaz. (Duela dagoeneko ia bi urte). *Katuak ganbaretan lo daudez*, M.L. San Anton mendi-tontorra, sagu muturra, sator harana. Piszifaktoriako erreboilu eta bigigua jan genizkian, non eta Getarian, Jon: sakrilegio gastronomikoaren aiputan luza nintekkek, luzamenik luzamen, muinari ez heltzekotan. Mamiari ez ekitekotan. Beldurra baino areago asperra dela uste diat. Beti gauzaren gauzetan

gauzaka, zenbat buelta zaldiko-maldikoak, zenbat zotin si-ku errotharriak, zenbat ehoaldi pasapureak. Baina aurren –hots, iaz, hots, duela ia bi urte–, ezin izan ninduan libratu. Bera hurbildu zuan, espresuki, nire mahai-izkinara, nirekin hitz egitera, ni Patxi Etxeberriarekin, Xatur Zumalaberekin eta Iñaki Elustondorekin nengoen txokora: erretzeari behingoz uzteko erreguka, ia mehatxuka, ari zitzaidan su eta gar Iñaki, ia urtero bezala –hura bai mediku bokazionala, Jon, astialdian ere ez zioke bere profesioari uko egiten, beste askok gureari, nazkaren nazkaz, egin ohi diogun ez bezala: bagenikek harengandik zer ikasia idazle geure detritus autojaleok– ...Ba, hartaz eta hartan ari ginela, gure ondora hurbildu, aulkia ere inguratu, eta nire ondoan eseri zuan Alfonso, gogoratzen haiz, noski: Alfonso Diaz de Ilundain, uste diat behin baino gehiagotan aipatu izan diadala gutun-egiotan aspaldian ez zela gurera etortzen, nolako tirabira latza izana genuen duela ia mende-laurden bat Oiartzungo beste bazkari hartan, hori ere uste diat kontatu niala noizbait. Dena den, harira. Hantxe nire ondoan Alfonso, beste lauron gonbertsazioan inolako espanturik eta baimen-eske zeremoniatsurik gabe tartekatua. *Shift*: hizkuntza-aldaketa automatikoa, betiko legea –*dura lex sed lex*–, esku-ahuldunok egunero mila bider biderkatua (*katuak ganbaretan lo daudez*, M.L.): «*le estaba diciendo a Andoni que...*», Iñakik bere tabakoaren aurkako gurutzadan sutsu, batere monotonia profesionalezko doinurik gabe, eta Alfonsok ere baietz, utzi beharko niokeela, utzi behar diodala, berak derrigorrez utzi behar izan zuela duela hiru urte bihotzekoa izan zuenean, eta Iñakiri zor ziola bizia, Iñakik agindutako tratamenduari, Iñaki buru duen Polikli-

nikako kardiologo-ekipoak egindako operazioari, «*bueno, bueno, no exageres*» honek arrapostu sinzeroa, ahal zutena egin zutela, jakina, baina..., eta orain El Villarreko garaian bezain mutil kozkor sentitzen zela, «*un chaval como en los tiempos de El Villar*» Alfonsok. Komunerako aitzakian jaiki ninduan, joan-etorrian zigarroa erretzeko, noski».

«Bueltatu nintzenean, «hantxe zeuden oraindik dinosauroak» idaztera nindoakian, Jon, apeta ultraliterario in-pertinentez.

—Ez al didak lehen esan bitxo horiek danak aspaldi jo eta akabau zittula zerutik amildutako suzko bola haundi batek, Joxantonio? Zeinek diaukak arrazoia, gure mutilak ala heuk?

—Neronek, nagusi, sentitzen dut, baina, berez, neronek. Milioika urte dira lur azalean dinosaurorik batere gelditzen ez dela.

—Begirok, gazte, begirok. Hi jakintsua haiz, baina gure mutila tontua ere ez, gero. Lur azalian baleike, baina lur azpitan-edo, nun edo nun, egongo dek oraindiokan aleren bat edo beste.

—Tira, ba, arrazoia eman beharko horretan ere, nagusi. Zu bai zarela egoskor guztien kapitaina!

—Kontramaixua. Kontramaixua bakarrik, kapitana izatera ez nitxuan ailegau sekula ere.

—Beno ba: kontramaixua. Baina utzi diezaiogun «zure mutilari», zuk esaten duzun bezala, hitz egiten, ala?... «Mutila», alajaina. Ederki eman ere. Tema polita genuke diskusiorako, nola deitzen ahal zaion «mutil» ia hirurogei urteko gizon gordinetik pasatuxe bati. Baina utz dezagun, utz dezagun...

—Bai, hobe. Ez baldin baditxuk hik ere toilenak hartu nahi, gure mutilaren kontra gaizki esaka jarduteagatik.

—«Toilenak»? Zer da hori, nagusi?

—Et-et-et. Berriketa gitxiago, eta entzun.

«Baina ez diat nik neuk neure buruari ergelki jarri ohi diodan segada-mota honetan erori nahi: hitzek menderatzen bainaitek beti, eta oraingoan ez, oraingoan alderantziz gertatu behar dik, gerta dadin nahi diat behinik behin, ulertzen didak. Haiek ez zituan, ez dituk, dinosauroak; edo izatekotan, ni neu eta nire pamerial guztiak garen bezainbat, denok baldar, denok zangar, denok zabar, denok nabar. Lagunak, garaikideak: nor garaitukide eta nor garailekide, hori azken finean nork zakik. Baniakian, aspaldiko urteotan gure zerako zerarena gai tabua –ejem, gustu txarrekoa– izana bazen ere gure urteroko enkontruotan, aurtengoan –iazkoan, hots, duela ia bi urtekoan– derrigorrez mahai gaineratuko zela; ordura arte gertatu ez izana zuan harrigarri, ez alderantzizkoa. Alfonso horretara inguratua zuan gure mahai-bazterrera, bistan duk, bistan zuan. Orduan proposatu nioan strip-tease totalarena, berari zuzenduz, berari begira, espresuki. Besteak ere baztertu gabe: esku-keinu batez, proposamenak denontzat balio zezakeela adierazi bainien segidan, begirada halere Alfonsoren begitartean tinko. Ezin diat hitzez hitz, dialogo dramatiko modura alegia, transkribatu gure gonbertsazioa. Arrazoi bat baino gehiagorengatik: bat, luzeegi litzatekeelako; bi, konbentzionalismo linguistikoeak aspertuta naukatelako; hiru, egiazki ezpain-oholez izandako solasaldiak eskuahaldun erara aurkeztea gezurra delako; lau, euskal litera-

tura simulakroa ez delako; bost: ikus bedi bat, eta bi, eta hiru, eta lau, *ad libitum*. Eta sei: *katuak ganbaretan lo dau-dezelako*, M.L., amets gehiegi kiribil-akaturik gure arasa hautsezatuetan, ixo, ez ditzagun iratzar, arren...».

«Garaitukide garaikideok», pentsatu nian, edo pentsatzen diat orain pentsatu nuela orduan, «badugu garaia, ezta?». Baina esan, ez nieran halakorik esan. Besteak beste, Alfonsok ez zukeelako ulertuko, eta beste hirurek ulertu bai, baina aintzakotzat hartu ez seguru aski. Strip-tease totalarena, hori bai, berehala denek baietz. Xatur Zumalaberen erremuskada ironikoa gorabehera: «Zer, Saturrarango Hitzarmena berriro ere, ala?», esan zian barre-murrika, eta instantean edukazioz man-intzineratu: «*Le pregunto a ver si quiere renovar el Pacto de Saturrarán*». Hire gobernurako, ez baitakit inoiz kontatu ote diadan: halaxe deitu genioan, orain dela ez dakit zenbat urteko beste groteskada unamuniano hauetako batean, elkarri lepotik helduta, pe-neubetar, hatxebetar, pesoetar, ear eta eear ikaskide-ohi mordoxka batek geure buruari atera genion argazki-oinari: *Saturrarango Hitzarmena*, alkoholaren euforiaren efektua, erran gabe ziak, niri otu zitzaidaan, gainera, izendape-na, «hi gogor plantako bigun bat besterik ez haiz» bota zidaan orduan Patxi Etxeberria apaiz lagunak, gaur egun Alec Reid deritzogunak, «aluba» esan nioan noski, zeren, ume-umetatik laguna dudalako eta kariño osoz esan zidalako, bestela ez bainioan berehalakoan barkatuko, ez horixe... Baina itzul nadin arrastora, Jon. Xaturrek zirikada natural, baina nik erantzuna petral: «Bai, motel, sordoek utzitako hutsunea hik bete dezakek», ba, kontu zahar desitxurosoak, eskerrak zaharregiak garen dagoeneko horre-

lako huskeriengatik malmetitzeko, barre egin zian Xatur aralarkideak, eta nik ere bai, legez kanpoko gizalegez, «*le digo, Alfon, que puede ocupar él el hueco que...*», «*sí, sí, eso ya os he entendido*», atzera berriz Alfonsok, harrapa ezak, tontolapiko arraio eskuahuldunok, beti berdin, sekula ez diagu ikasiko, herri minorizatua ez, herri minimizatua gaituk, Jon, gutxiagotasun konplexuaren konplexuz... baina ez nadin berriro desbidera. Strip-tease totala.

—Ba, zerbait esan beharko zenioke, nagusi. Zuri kasu egiten baitizu beti. Niri, berriz, zenbaitetan bai, baina gehientsuenetan ez.

—Zer esan behar dixuat, ba?

—Gaizki ari dela. Okerreko bidetik ekin diola. Askoz ere beranduagoko koaderno batetik ari dela irakurtzen. Gauza asko eta asko ez direla ulertzen, alde z aurretiko esplikaziorik gabe. Jon hori nor den ez dakigu, esate baterako. Ezta Andoni bera ere, idazten ari dena: ez digu presentatu ere egin. Eta hainbat hitz ere...Nork entendituko dio, adibidez, «man-intzineratu» aditz arraio hori?

—Nik bai. Manintzinen hizkuntzara pasa.

—Bai, bai, baina hori tranpa da, nagusi: guk badakigu zertaz ari den, aspalditik garelako haren aingerru guardakoak...

—Abadeen barbarik ez niri, gero. Ni euzko indarreko gudarixa izan nauk, izan eta izango.

—Konforme, kap... kontramaixu jauna. Haren «parte oneko arima erratuak», nahiago baduzu. Baina nik zera esan nahi dizut, oso gauza xingle bat: oraindik ez digula Manintzinen ixteriorik kontatu! Nola

jakingo dugu zer den manintzineratu, orduan? Esaiozu, mesedez, liburu batean, detaile horiek zaindu egin behar direla, zaindu.

—Ze uste dek, Joxantonio? Gure mutilak ez daki-xela nun dabilen eta zertan diharduen? Ba bai, badiakik. Beita botatzen ari dek, mazi eta mazi egitten: etorriko dittuk, bokartak eta berdelak, baita hegaluziak ere, ikusiko dek.

«Bera ere hunkitu zuan. Esan nionean –nienean-, ziri zitalak eta zirto ergelak alde batera utzirik, nik neuk behintzat ez nuela gure betiko zerako zeraz hitz egin nahi, strip-tease totala egiteko izan ezik, bera ere, Alfonso, hunkitu egin zuan. Hau askotan kontatu izan diat, Jon, memoriak flakia eragiten ez badit, zera, urtero komentatu ohi dugula, denok baina Patxi Etxeberriak batez ere, honako hau, bere *variatio* guztiekin: ai ene, guk hemen lortzen dugun komunikazioa, adostasun-gogoa, konponbide-grina, gizarte osoan zabaldurik balego, eta abar. Emozionatu egiten baituk gure Patxi, bazkariotara etortzen diren kurtsoko bi apaizetatik bata; bestea, Inaxio, askoz ere... nola esango huke *socarrón* gure hizkuntzan, Jon? (hiztegiak «trufari, isekari, nausale» zekarrek, baina ez zaidak bat bera ere batere gustatzen), ba hori, hura askoz ere patxadatsuagoa duk, harpa-joleagoa, horrelako zerbait. Patxi ere gizon umoretsua duk, baina intelektuala-goa, serioagoa hizkeran eta hizketa-gaian, gogoratuko haiz, noski, bai batarekin, bai bestearekin. Kixote eta Santxo deitzen zieat nik, ez oso modu orijinalan, aitor diat. Dena den, Alfonsorekin ari ninduan, barka ezak. Bera ere hunkitu zela, alegia, zera esan nionean, erdi-era osoan ja-

kina: «Hireek dagoeneko utzia ziotek sufritzeari: noiz ahal izango ditek beste horrenbeste nireek?».

—Hori behinik behin ongi egin du zure mutilak, Antxustegi jauna! Itxi egin du koaderno! Oraindik ez baita «(A)Saltus Vasconum»en tenore! Hori gero dator, laugarren kapituluan! Orain...

—Bai, Joxantonio. Ikusten diat, ez nauk itsua. Baina heu bai, itxura danez.

—Zergatik diozu hori, Antxustegi jauna?

—Ez al dek ikusten dar-darrez dagola?

—Igerian etorri da honaino, hitz-ontziaren deskalabrua gertatu ondoren, ez da harritzekoa hotzak dar-dar egotea...

—Ez dek hori bakarrik.

—Eta orain lehorrean barrena ibilaldi luzea egin behar du, hori ere bai, *Terra Sigillata*ko Barruhotzaraino. Aurrena, labar hau eskalatu, eta gero, oinez noski –honelako bidaietan ez baitago ez trenik ez autobusik–, Hitzaz Mendiraino iritsi, Haitz-Kieleko moilara jaitsi...

—Pasaiako portura eraman nahi al dek berriro?

—Ez da, berez, Pasaiako portua, nagusi. Eta Getaria ere tamainan bakarrik da Getari...

—Galanixa ugari zuek, letrajale alenok! Ederra pegatu diozue gure Jagobari!

—Baina ez al duzu lehenxeago esan badakiela zertan dabilen?

—Bai, badiakik. Baina gure laguntza behar dik.

—Horixe. Eta, inork ematekotan, guk emango diogu.

—«Guk emango diogu, guk emango diogu...». Zela emango dixuat nik laguntzarik, neure izena leitzen eta eskribitzen juxtu-juxtu diakiat-eta?

—Horretaz askotan hitz eginak gara, Antxustegi. Zuk baino...

—Bai, hago isilik, hire erretolika osua ezagutzen diat-eta. Animatu egik, ba, esaiok zeozer...

—Ez, nagusi. Zuk aurrena. Eta gero nik.

Badakit hemen ez daudela, baina baleude esango nieke. Badakit Praileaitzen dudala neure buruarekin, eta ez besterekin, hitzordu, labar honetatik gora, eskuin. Eta, beraz, guztiz debeku dudala, nahiz parte oneko nahiz txarreko ezein itzalekin mintzatzea. Baina baleude. Esango nieke. Hemen ez zagok *vae victisik*, Joxan, ene adi-hizkide hutsetsi. Ari nauk labarrean gora. *Der Krieg ist nicht beendet*. Zer diozu, aita?... Horrelako berbeta arrarotan ez jarduteko hainbeste? «Berbeta» diozu? Hori ondarrutarren hitza da gero, eta zu mutrikuarra, ez zinan zu ere, ba, aeneuetik peneuvera pasatuko, santujale itxurako agintedirugose koadrila horrengana horratik, ez, badakit ezetz, brometan niharduen, labarrean gora dihardut, ikusten nauzu, ikusiko nauzu, ez naiz damutzen itsasora erten izanaz neure sumarino moduko hitzontzi U-57 horretan, zu aurkitu zaitut-eta, *hori egixa da, hori egixa da, neuk ikusi det-eta*, eta hi ere bai, Joxan, lagun zahar, ez zakiat nola moldatuko naizen bizkarrean daramadan motxila pizu honetako koadernoekin, baina zerbait egingo diat, hago ziur, zabalduko dizkiat zoruan, kobazuloaren atarian, eta apailatuko nola edo hala, gero eta hertsiago, gero eta hurbilago lehertzen diren eztanden erdian ere sorgor,

ez baitago astirik, ezta aztirik ere, baina ez zioat berehalakoan utziko nolana ere izuari gure hitzaz mendia porlandi gangar bihur dezan, sinets iezadak, oraindik ez zauzkaat-eta zeharo ahaztuta hire aholkuak, *jakia behar diagu, ez goarnizioa*, ondo moldatzen haiz gure kontra maixu zaharrarekin, nik jakin, *kostadura arrimatuta Bibotexek saltatu*, zuk ere, aita, horixe bera aholkatzen didazu-eta, edo akonsejatzen didazu, nahi duzun bezala, batueraz nahiz mutrikueraz, berdin da, nire honako hau seguru nago ez zaizula berbeta arraroa irudituko, hark bezala nahi nitek egin nik ere, Joxan, *saltatu, etzan asko ikaratu, barruan zer tzon aguro zoon kontatu*, nahiz eta ez dudan uste *aguro* kontatuko dudarik, ezta zer kontatuko dudan jakin ere zehazki, ele larregi larriegi asko izkiriaturik baitute motxilan daramatzadan ene nitalde-kide guztiek, baina *jakia* bedi, hori bai, *ez goarnizioa*, saiatuko nauk, hik *Atlantisen* historia, edo Otsoportiloko hits-toria, edo Mexikoko hitz-toria, kontatzen hizkigunean bezain zalu, zintzo, zorrotz, nahi den adjektiboa hauta, baina substantiboa errespetata, ari nauk dena den labarrean gora, iritsi ere egin nauk jadanik talaia tontor koxkor honetara: hor behean dago U-57 urpekontzia, harkaitzetan enkallata (bermeotarren berba, bai, aita, badakit), Zumaia ingurua da hau, baina Seneko Zuloa deitu diot hasieratik, Pasaia-koari bezala (ez dago zertan Haitz-Kiel deitu beharrik, konforme, aita, baina honelakoak gaituzu letrajaleok, zure semea ere barne), eta hor izanik, hona naiz, aldean dakartzat *Terra Sigillata* zaharreko koadernoak, hondoramenduan bustiak baina ez suntsituak, itzali dira nire eskifaia-kide guztien ahotsak, ez dakit hil ote diren, eta hil badira

hori ona ala txarra den, baina berpiztuko ditut halere, ta-mainan, bai baitakit nora jo behar dudan, eta zer egin behar dudan, askotan errepikatu didazue...

—Begirok. Hitzak neurtu, ez beitarik eman marrazoei, ez kanpokoei, ez barrukoei.

—Eta hortik kontuak atera. Hilak hilagatikan aurrera biziak. *Animula vagula, blandula*, Jagoba, gogorra hadi: *hospes comesque corporis*, gorputzaren arrotz eta adiskide, *quae nunc abibis*, laster joango haizena, *in loca pallidula, rigida, nudula*, leku zurbil, gogor, biluzietara, *nec, ut soles, dabis iocos*, non ohi duan jolasik ez baituk emanen, *nec ut soles dabis iocos, nec ut soles dabis iocos...*Baina jolas hadi, bizirik hago-eta. Gu ez bezala.

—Horixe. Nik ez diakiat latinez, baina Joxantoniok arrazoi, arrazoi galanta gainera. Begirok. Eutsi bizitzari. Eta errunboari: Nun gagoz, Espainian ala?

Eskuin. Iritsi naiz. Praileaitz deritza orain dialisimakina honi. Hau ez da Haitz-Kiel. Hau ez da Hitzaz Mendi. Inoiz ez gara, berez, lehengora berera itzultzen. Han izanik, hona naiz, beraz. Baina, horrexegatik, han izanaren berri eman behar. Berriro. *Da Capo*.

HITZAZ MENDI

GURE ELKARTE, TXOKO, SOZIETATE, gizarte edo jendartean –hitz aproposena zuek hauta–, Frantz Fanonen aipu eder bat daukagu, pixka bat gure erara atondua, enmarkatua eta paretan eskegia sarrerako atea zeharkatu eta berehalaxe, ezker aldera. Hain aspalditik dago han jarria non apenas gogoratzen baikara han dagoenik ere, ia inoiz. Ez nuke nabarmendu nahi esanez denboraren higadurak horitua eta lizundua dagoenik; besteak beste, inprenta-letra garbiz idatzia eta kristal sendoz babestua dagoelako; eta batez ere, deskribapen grinatsu enfatikoek deus ez diotelako erans-ten ahazturaren eta ohikeriaren inertziari, nik bezalaxe zuek ere ondotxo dakizuenez, Jon, Amaia. Honela dio gure gure Hitzaz Mendiko izkribu ia-sorreratiko horrek:

*«Gaindi dezagun behingoz norbere buruarekiko elkar-
rrietzeta tai gabea, narzisismo gero eta likitsagoa, bidea eta
lurra atontzen dizkiona ia eldarnio ere baden burutazio ba-
ti, buru-lana oinaze bihurtzen duenari, non errealitateak ez
baitira dagoeneko gizaki biziarenak, lan egiten eta bere bu-
rua egiten duenarenak, baizik eta hitz hutsak, hitz-multzo
hutsalak, hitzen esanahietatik sortutako tirabira antzuak».*

Egokia da, zalantzarik ez, perpaus trinkoagotan eman bazitekeen ere, nik uste: prosa zaharkituxea irudituko zai-zue, apika. Baina, funtsean, iritzi berekoak izango zarete zuek ere, seguru aski. Edo «zaretekete» esan beharko nuke beharbada, 70. hamarkadako euskal aditz supositibo honezkero arkaikoa erabiliz. Baina ez: «izango zarete» esatea aski bedi, ez dezadan estropezu egin lehen urratsean bertan. Nagokion neure eginbeharrari, berba hutsen inguruko itzul-minguruak albora.

Ordena apur bat, beraz: ezin dizuet Hitzaz Mendin egin ditugun bilera guztien akta egin, inola ere. Beti bezala, aukeratu egin behar. Hemen duzue, alegia eta deus ez, lagin bat, atzekoz aurrera kontatua, arestikoenetik aspaldiagokora, hurrenkera normala horrexek izan behar baitu, burutik eginak ez bagaude. Atzokoa, suposatzen da, duela hainbat urte gertatua baino presentego behar dugula izan. Literatura ez baita marra librea, gaztanberazko oroitzapenen bazka-leku, gaztanberak ez baitu hezurrik, ala bai. Geruzak, sailkatu beharrean, sakailatu egiten ditugu, ordea, sarritan, zangopilatu eta lardaskatu, burutazioei bururaino bururatzen utziz gero. Nahiz eta, berez, ez lukeen hala behar, *zer* bakoitzari bere *noiza* baitagokio. Esate baterako, Jon: hi gogoratuko haiz, beharbada, Aranzadin zenbiltzatenean-eta, gure gazte-denborako uda urrun haietako batean, Leze Txikira eramán nuen mutil belgikar hartaz –Jean Luc uste diat zuela izena, abizenaz ez nauk oroitzen, Namurekoa zuan, hori bai, gogoan diat–. Eta gogoratuko haiz, beharbada, *zer*-nolako «bihurrikeria bitxia» egin zizuen aztarnategian («*un drôle de plaisanterie*», halaxe esan zidaan tontolapiko hark, barrez, kargu hartu nionean): he-

zur bat geruzaz aldatu. J.M.B., J.A., P.A. paleontologo handi haiek berehala konturatu omen zituan, egun hartan bertan nonbait, baina, hurrena elkar ikusi genuenean, P.A.-k errieta dexentekoa egin zidaan, arrazoi osoz, denbora alferrik galarazi nizuelako, horrelako bisitari graziosoak eramanda. Orkatz baten matrail-hezurra zela uste diat, hura hartu eta beheragoko geruza batean sartu zian txokolatero alaen hark, beheragokoan edo goragokoan, ez nauk oroitzen... Baina zer nabil. Hauxe bai kontraesana. Duela 40 urteko anekdota ergel batekin hasi nauk. Duela hilabete gutxi batzuk gertatua kontatzen hasi beharrean. Ez da gizona, barka. «*Une musée roulante*» deitu zioan Jean Luc hark gure kostako trenari, ikusi orduko, eta esan genionean –nionean– hobe zuketela flandestarrek eta waloniarrek estatu bana eratu edo, preseskiago, waloniarrek Frantziarekin bat egin eta flandestarrek Herbeherekin, orduan bai haserretu tipoa, eta harrezkero ez kartarik eta ez kristorik, gure etxean egon zuan apopilo uda osoan, eta ba, babo arraioa; hura bai *musée roulantea*, bizi ote da oraindik, auskalo, gu baino zaharxeagoa zuan-eta... Jean Luc ez-dakit-zer, frantximent belgikar *grandeur*-osoa, zakil galanta... Baina, ikusten duk, noski. Ezin zaiola idazketari honela suelto utzi, bridak estutu behar zaizkiola. Ikasiko ahal diat noizbait, hala biz. *Kapitulieren* ate-joka zeukaat-eta. *Desolé*, Amaia, sorry, Jon.

2.1.- KAPITULIEREN

Itxuraz inoiz baino urduriago, sekula baino asaldatuago sartu zen Jagoba Antxustegi Hitzaz Mendiko elkar-

gunera, duela zenbait hilabete –2006ko martxoaren 22an zehazki: zergatik ibili itzulinguruka; egonarriz induskatu, garbitu eta sailkatu beharrak dira kataklismoak ere–, eta brausta aldarrikatu, eskuan paper-mutur bat bandera: *Die Krieg hat beendet. Kapitulieren*. Hantxe ibili zitzaigun jira-biran, espantu eta imintzio, mahai-inguruaren bueltan, ebats eta erdizka, jauzi eta jausika, egundoko dantza eroe-nean aspaldiko partez. *Die Krieg hat beendet. Kapitulieren...* Zertarako ukatuko dizuet. hitzaz-menditar koadri-lan, huraxe dugu, nik uste, estimatuen, hain baita ume xumea, hain xanoki xaloa. Esate baterako, alemanez ia zipitzik ez daki. Baina beti dabil alemanezko kodedun mezu zifratuak zarpailtzen, ziza-mikatzen. Eta hanka sartzen, bistan da. Orduan ere, Mikelek zuzendu behar: «*Die Krieg*» ez, Jagoba, «*Der Krieg*»: alemanez «gerla» maskulinoa duk, ez femeninoa. Berdin omen zitzaion halere, zer axola zaioka erantzun zigun, gure artean neutroak ditun/k gerla guztiak, zirto zakilixutierra arrapostu. Egia zen, dena den. Erakutsi zigun halako batean paper-mutur hura, eta hitz haiek zetozen, telegrafikoki jakina, ez artikulua ez adizki laguntzaile: *Krieg beendet. Kapitulieren*. Gure Mikel hizkuntza-zalantzan hasi ere bai segidan, «*hat beendet*» edo «*ist beendet*» behar ote zukeen, zein ote zinez zuzena. Azkar asko moztu genion sasi-bidea gainerakook. Ea zer zioen. Gerla amaitua zela, alegia. *War is finished*, erantsi zuen, *of course*, nire anaia Ander Elizalde biki siamdar honek: lehertuko zen bestela, harroxko alaena.

Haustura zertan eta zergatik gertatu zen, asmatzen erraza da. Ea *kapitulieren* horrek zer esan nahi zuen, guk Mikeli galde... «Kapitulatu». «Errenditu?» –Kepak bereha-

la. «Ez, berez» –Mikelek, zehazkoi–. «Zer, bada?»... «Kapi-
tulutan bildu, esan nahi lezake», hark erantzun. Eta ea, or-
duan, norantz berrabiarazi behar genuen ordura arteko
gure lan guztia, eztabaida segidan. Batzuek –Kepak eta
biok batez ere– zertan ezer aldatu beharrik ez zegoela, bil-
duta geneukan material guztiari –*hainbeste kostata*, enfa-
tizatu genuen, oroitzen naiz– berdin-berdin eman behar
geniola sortida. Ander ere, berehalaxe zehaztuko dudanez,
gure iritzi bereko izan zen egokiera hartan, bidezko da
hori hala aitortzea: «“jaulki” bai, “erauki” ez», errepikatu
zigun behin eta birritan, hitz zaharrak paseatzera atera-
tzeko daukan bere betiko maniaren ildotik. Baina guk
ulertzen ez. Ez geunden, bistan da, filologi jolasetarako.
Nahikoa lan bagenuen Jagoba Antxustegi sosegatzen, edo
sosegatzen ahalegintzen, hark bere aspaldiko plana berri-
ro mahai gaineratu baitzigun, bere ditzosozko bi aire-pla-
noak, bere betiko U-wort urpekontzia, orduantxe zela au-
kera inoiz baino aukerakoagoa Hobetu Leike porturantz
abiatzeko, atako bandara behar genuela, Hitzaz Mendiko
lizun zihatuz guztiak astintzeko garaia zela huraxe, inoiz
izatekotan: ohiko bere erretolika, beste edonorena balitz
aspaldi asper-arraiotuak gintuzkeena, baina, Jagobarena
izaki, hobe beharrezko onginahiaz bederen entzun genio-
na. Ni neu saiatu nintzen batzarrak batzar jarraitu behar
zuelako tesia ahalik eta gogotsuen defendatzen. Edorta
Orozgoitiri zehar-begiradak eta tarteka are interpelazio
zuzenak ere zuzendu nizkion, lagun ziezadan. Baina
Edortak ez zidan lagundu; bere latinkada amorragarri
haietako batekin agurtu gintuen, *nunc dimittis servum
tuum* edo horrelako zerbait, eta joan egin zen bilkuratik,

ez bat eta ez bi, nora zihoanik ere esan gabe. Arrapalada, sakabanaketa, handik gutxira gauzatu zen. Jacobak, Hamelingo zerako zerak bezalaxe, bere atzetik atoian eraman zituen hitzaz-menditar gehienak: azkenean, Kepa bera ere bai *–tu quoque?* esango niokeen Edorta banintz–, baita Mikel ere –honenak ez ninduen hainbeste harritu, gizon langilea bai, baina Jagobaren edo edonoren hitz sutsuen jopu izaten baita beti, eta hantxe geratu ginen, ahoa bete hirtz, Ander eta biok, besteak, *il faut descendre, il faut descendre dans la rue* kanta jurasikoa kantari –pentsa noizkoa den, Jon: 68koa–, kalera zihoazen bitartean, eta handik, suposatzen da, moilara.

Kapitulieren: hortxe zetzan gakoa, zetzan eta datza, ulertzen didan noski, noka baldarrean ari banatzain ere, Amaia. Presente historikora igarotzea hobe izango dinat, etsi-etsian, halako nahasketa baldarrik ez eragitearren. Hau da, Anderrek zinostan, dinost alegia, Done-Hitz almirantearen mezu garden gordin hori ez dela inola ere «erauki»rako ordena, «jaulki»rako baizik. Inork ez zionagu, ordea, ulertzen, hori dun arazoa. «Erauki», izan ere..., nork daki zer den «erauki». Nik ez behintzat. Eta, susmoa ausardituz, apustu egingo niken hik heuk ere ez dunala ezagutzen hitz hori, idazle bipila haizen arren. Begira ezan, begira, Azkue zaharraren altxorrera (Mexikon, Mitxelena-Sarasolaren Orotarikoa ez baitun seguru aski eskura izanen). Biok bakarrik gelditu garenean, horixe egin din aurrena Anderrek: hiztegi estalki beltz letra horizkoaren lehen tomoa apalategitik hartu, eta nire begien bistan zabaldu. Garbi asko esaten din, bada: «erauki... *voz que equivale a “yo me rindo”, mot qui equivaut à “je me*

rends”. (Ax.) *Garaitia emanik, erauki erranik: dándose por vencido, diciendo “ya me rindo”: en s'avouant pour vaincu, en disant “je me rends”* (Ax. 3^a-182-22.)». Eta «jaulki»? Ba al dakigu, gero, zertaz ari garen «jaulki»ka ari garenean?... Gonbidatzen haut, hor ere, gure hitz-biltzaile erraldoi haren meatzera: lau adiera zauzkan hitzak, laurak ere zein baino zein, horratx: «1) (G-and) *caerse (la fruta, de puro madura), por el ímpetu del viento: tomber (en parlant du fruit bien mûr), par la violence du vent.*-2) (G-gab-zeg), *desgranar mazorcas de maíz, alubias, etc.: égrener des épis de maïs, des haricots, etc.*-3) (G-and-zeg), *confesarse autor de alguna fechoría, hablar con poca reflexión: s'avouer auteur d'une faute, parler étourdiment.* Jaulki zaio: *ha confesado, se le ha caído (de los labios la confesión de ser él el delincuente): il a avoué (l'aveu du délit lui est tombé des lèvres).* (H)itzak aisa jaulkitzen zaizka (h)orri; *isilikako gauzak ezin esan lizaizkake (G-an): a ese le salen las palabras fácilmente, no se le pueden confiar cosas secretas: les mots lui coulent facilement de la bouche, on ne peut lui confier de secrets.*-4) (G) *referir, narrar: rapporter, narrer.* *Heliren leya ikusirik, guztia jaulki zitzayon, ezer ere estali gabe: viendo la porfía de Heli, le refirió todo sin ocultarle nada: voyant l'insistance d'Élie, il lui raconta tout sans rien lui cacher.* (Lard. Test. 165-37)».

Hori behintzat aintzakotzat hartu behar baitzaio gure Anderri, Jon, Amaia. Dexente daki gure esku-eraz. Ez da erauki-erraza, eraikitzen traketsa izan arren. Jaulkitzen ere ozta-ozta daki, edo ozta-ozta dakigu bederen zein adieratan jaulki ohi duen: arto-mokotsak jaulkitzeko pazientziarik ez du behintzat, bere hitz-jokoen ur-lasterrean

ur-lotuta sarri jaulkitzen zaio bere nahigabea nahi gabe, literatura grinaren eta euspenaren haizeak eraitsitako txermena dela aspaldi du ahantzia nik uste, eta narrazio-dohaiaren nor-nori zoragarri hori inoiz ez du behar bezala ulertu, nor-nork-ean tematzen baita betiere. Batzuetan, kataklismoak ezin baitira ekidin, ezta eragotzi ere. Hirugarren pertsonen ezkutuan ezkutatu arren. Denentzat baitu zer esana ene Ander biki honek, bere baitatik izan ezik, beti ere jaulki behar dela jaulkika badabil ere. Luzeegi joko lidake gure elkartean sorrarazi dituen konponezin itzulezin guztien berri emateak. Luzeegi eta antzuegi. Ez baita jabetzen, itxuraz, nahiz eta ni neu ahal dudan guztietan horretaz jabeazten saiatu, bere kideotako edonori kalte egiten digunean, bere buruaren ere kaltetan ere ari dela. Alferrik, baina. Hona hemen, esate baterako, Amaia, Jon, diodanaren testigantza gisa, «*Du côté de chez Ander Elizalde*»neko pasarte antigoaleko batzuk, gure elkarteko Mikel Zabalegi itzultzaileari –gizon langilea, inon langilerik bada– destainaz eskainiak behiala:

2.2. ANDERREN ERANSKINAK (ERANZKIN NAHI GABEAK).

2.2.1. - *REMAKE*.

—Ez da posible, ezin liteke –kanta-marmartu zuen Ander Elizalde, mahaipetik bere belaunburuaz aldameanean zuen Xabier Landaluzerena ukituz–. Aurpegia behar duk, gero. Latza.

Burua berarengana bihurtu eta bekainak uztaituz begiratu zion Xabierrek, zergatiaren galdean, ez hitzen ez disimulu handiegiren premiarik sumatu gabe nonbait. La-

gun artean ez al gaude, bada, esanez bezala. Euskaldunik baizen ez den konpainia noblean eta abar, baietsiz bezala.

Mikel Zabalegiren ahots hunkituak durundi, artean, Hitzaz Mendi elkarteko afaloste-giro kezatuan, aspaldiko partezko topaketaren topa-unean. Lokal mehar, sabai apal, leihaskak zabalikako hartan, Faria oraindik ez debekatuen lurrin garratza, eta sabel-bapotasunaren ondoriozko soako gandutuak, betiko moduan. Mikel zutik, artean, gizalegerik arruntenaren arauen arabera txanpain-brindisari ekina, likido horia moda antigoaleko kopa mozkote-zabalxean ziraldoka:

—Izan ere, garai eszeptiko batean bizi gara, garai —esamolde hau erabiltzea haizu bazait— gogo-hilduratu batean...

—Ez al haiz konturatzen, baina? —Anderrek Xabierri ahapeka.

«Zertaz?» esan nahi zezakeen soinu inartikulatua Xabierrek.

—Hitzez hitz Joyce plagiatzen ari dela, zera! —Anderrek, ernegu-bulkoari hortz artean eutsiz.

—A... —zehazkabeki Xabierrek.

Mikelek, artean, aurrera, zinezko dirudien hunkidura itxurosoaz:

—Behialako egun haiei, gehiegikeriarik gabe, egun zabal dei geniezaieke: eta atzera itzul-ezinean betirako joanak badira ere...

—«*Those days might, without exaggeration, be called spacious days: and if they are gone beyond recall...*» —Anderrek Xabierri belarrira xuxurla, eta honek ez-ulertuaren muzina hizkuntza arrotzari.

—Ixoooo... –demanda egin die Maite Ezpeletak, hitzez baino areago begiz, begitartez eta ezpainez, mahaia-
ren parez-pareko bere eserlekutik: bere oin-puntaz Ande-
rren orkatila minberatu ere bai.

—...itxaron dezagun, bederen –entzuten da, erdi dar-
dar, Mikelen ahots kraskatua–, honako hau bezalako bile-
retan, jarraitu ahal izango dugula oraindik haietaz mintza-
tzen, harrotasunez eta maitazarrez, eta oraindik gure
bihotzetan ederretsi ahal izango dugula hil eta betiko joan
ziren handi haien oroitzapena, zeintzuen ospea munduak
ez baitu nolana hiltzen utziko...

«Bo, bo, bo» –idatzi du, sic, arrapaladan, Anderrek
bere paperezko zapi zimurtuan–: «zeintzuen» hori Nafa-
rroa-Arragoarena baino nahi eta ezinagoa duk: *«let us ho-
pe, at least, that in gatherings such as this we shall still spe-
ak of them with pride and affection, still cherish in our
hearts the memory of those dead and gone great ones whose
fame the world will not willingly let die»* –eta halaxe dara-
kuskio paper-muturra Xabierri. Honek, bere ohiko kezka-
keinuaz, bere bizar oraindik ez hain urdindua laztantzen
du oharra irakurtzerakoan, hizkuntza arrotza ez baitzaio
hain arrotz, dirudienez, idatzia baldin bada, eta bukatuta-
koan zorrotz samar begiratzen ere bai Anderri, gaitzes-
pen-kutsu batez edo, Anderrek hala deritzo bederen. El-
karte bat gaituk, agiraka bezala. Denok batera ez bada,
ezin izanen diagu deus egin, errietan bezala. Bazakiagu
eruditoa haizela, baina horrekin ez goazek inora, iharde-
tsiz bezala.

Artean, aurrera darrai Mikel Zabalegiren pheredikia:

«But yet (...) there are always in gatherings such as this sadder thoughts that will recur to our minds: thoughts of the past, of youth, of changes, of absent faces that we miss here tonight. Our path through life is strewn with many such sad memories: and were we to brood upon them always we could not find the heart to go on bravely with our work among the living. We have all of us living duties and living affections which claim, and rightly claim, our strenuous endeavors».

«O, nahastu nauk, noski, kanalez: konturatu gabe, dual-audioaren tekla zanpatuko nian, pelikularen jatorrizko bertsioa entzunaraziz. Ez, ez, ez: ea zer dioskun bere baitatik gure Mikel itzurtzaile, barka, itzultzaile maiteak; errebobina dezadan... Bai, honela hobeto», egin dio txutxumutxu Ander Elizalde bere aldameneko Xabier Landaluzeri, beronen irribarrezko konplizitatea erdietsi nahian. Ez du lortu baina, serio jarraitu baitu beronek mahaiburuko Mikel Zabalegi omenduari arretaz begira, aldameneko Ander Elizalderi ozta-ozta betertz-soako axolagabe bat bristadatuz, berak honako hau entzuten duelarik beste guztiek bezala:

«Baina, halere, beti badira, honelako bileretan, gogoeta goibelago batzuk, gure gogoetara behin eta berriro etorle: iraganaren gogoetak, gaztaroarenak, aldaketenak, gaur hemen hutsesten ditugun begitarte aldenduenak. Bizitzan barrenako gure bidea halako hainbat gomuta tristez ihaurri dago: eta haien gainean beti hausnarrean bageunde, ezin izango genuke bizien artean dugun lanari adorez aurrera eragiteko behar den adinako bihotzik aurkitu. De-

nok bai baititugu eginkizun biziak eta maitazarre biziak, gure ahalegin kementsuak galdatzen, eta zuzen galdatzen, dituztenak».

—«*Therefore, I will no linger on the past. I will not let any gloomy moralizing intrude upon us here tonight*».

—«Beraz, ez naiz berantetsiko iraganaren gainean. Ez diot ezein moralizamendu goibeli gure artera sartzen utziko gaur hemen».

Isilune minbera. Ihardespenik ez inork. Gutxitan mintzatu ohi da bilerotan, baina egiten duenean badaki sesio amaiezinok amatatzen. Xabier Landaluze, elkarteko marraizkilaria. «Ni banoa lanera» arrunt bat erantsiz agurtu du Hitzaz Mendiko konpainia noblea, euskaldunik baizen ez omen den elkarte zora(bio)garria.

2.2.2.- CARREFOUR

Betiko ondoeza sentitu zuen Mikel Zabalegik, orgaxkari bultzaka, «Alimentación/Eligaiak» (sic) errotuluaren pean alde banatara hiru bat metro gora luzatzen ziren apalategi lataz, paketez, botilaz mukuru haien arteko pasilloan barrena zihoala. «*Oihane Olasagasti, de Confección, acuda a Recepción*», esan zuen megafoniatik gaztelar erri- ma arrunta nonbait bost axola zitzaion ahots femenino nagi-estressatu batek. Aspaldian ez zuen errealitate hartaz artikulatuki pentsatzen. Jadanik zimiko bat besterik ez zen: ondoeza, nolabait deitzearren, ernegu izandako sent- sazio baten ondoriozko hazkura moduko zerbait, eltxo- heldu baten hondar-erresumina. Enkriptatuta zeuzkan oroimenean behiala hain sarri han eta hemen eginak zi- tuen protesta alferrikakoak, «*acuda a recepción*», baita he-

rriko alkateari ere, ea Euskararen Udal Ordenantzak zertarako zeuden, ea zertarako zegoen garbi asko adierazita ez zekien zenbatgarren artikuluan –ez zen oroitzen harezkero, baina garai batean zehatz-mehatz egin ohi zion aipua Koldo alkate eta halere lagunari–, zergatik, alegia, agintzen zen solemneki udal-esparruko zerbitzu publiko eta pribatu guztietan euskara erabili behar zela, ez soilik erdararen pare eta bezainbeste, baizik eta bi herenetako maiztasunean, «udalerrriaren errealitate soziolinguistikoaren arabera». Erabat ahantzia ez Mikel Zabalegik betiko arantza hura, baina oroimenean baztertua bai, guk orain, inbentarioaren mesedetarako, gogamenean ideia haren akordua zebilkiola badiogu ere. Orain, Urriko larunbat honetan, besterik du eginkizun, arretagai eta oroimin, bere erosketa-orgaxkari bultzaka, erosgai-zerrendari konplimendua nola eman beti bezain soraio, urduri eta mutiri, Carrefourreko apalategi-labirintoan barrena dabilela.

Berez, oso bestelako pentsamendutan zerabilen gogoia une hartan, diogun bezala. Ordu pare bat lehenago Macintosh-eratu berria zuen Txiki Chandler-en pasarte pare hura, itzuli berria izanik gomutan artean fresko:

«Bere arima haztatzen saiatu zen, poeta-arima ote zuen jakitearren. Malenkonia zuen sentiberatasunaren nota dominantea, pentsatu zuen, baina malenkonia hura fede, etsimendu eta zorion xumeko aldardez tenperatuta zegoen».

Agian, «dominante»ren ordeaz, «nagusi» jarri izan bazu. Eta «tenperatuta» delakoak ere ez zirudien, ba, oso aukera egokia. «Berdindua» apika, edo «adinondua», edo... pentsatu behar zuen. «Poeta-arima», berriz, zer ote zen poeta-arima izatea –artikulatu zuen bere baitan–, poeta-

ofiziorik izan ezean. «Malenkonia», utikan. «Kiribil malenkoniatsua», eta hiraren korromioa, korrokada mingots. Gogo-beste egin zuen: «Tilistak» –halaxe idatzia zion Marianek. Ez ote zen, baina, «dilistak»? Begiratu behar zuen Elhuyarren, edo Orotarikoan: «d»rekin bazen, bale, baina «t»rekin izanez gero, *eso ya está más jodido* –«euskaraz pentsa ezak», agindu zion automatikoki bere golkoari, «non gagoz, Espainian ala?», aita zenaren esaldi kretazikoa oroimenaren leze abisalen batetik–, «t»raino ez baituk oraindik iritsia... «Unean unekoari», artikulatu zuen, hitzak ebakiz, mentalki, suposatzen zuen, oraindik mentalki bakarrik. Une hartan erosketak egiten ziharduena, azukrea, eta hutsik behar zuen burua hura ez zen beste edozertaz, kafea, tonikak eta garagardoak ezker aldera, «Zumos y refrescos» kartel zintzilikariaren lehen leerroan, «Zakuak eta freskagarriak» bigarreanean: sic, egiaztatu zuen, «zakuak», «zakuak», «zakuak», *redios, qué esperpento de país*, bere artean, euskaraz, Mikel, euskaraz, ingo-itteu bai hurrena ere ordenantzak, Koldo, unean unekoari, Mikel, segi ezak aurrera, harantzago, *grandes superficies*, azalera handiak?, um, ez dakit ba, Carrefour itogarri honi *gran superficie* deitzea ere, barrendatu zuen bere artean. Stop. Arrain-kontua hobe Marianek berak egitea, nik ez omen daukat begi klinikorik arrainaren freskotasanari igartzeko. Azaldu. Zer azaldu. «Azalera handia». Handiosoegia duk inondik ere. Haragia, tira, hori beharbada bai, errazagoa duk. Zenbakia: 99, eta zenbagarreanean doa?: 75, *setentaycinco* esan dik, eta nik *noventaynueve* zeukeat, zer gehiago behar dut: arroza, bale, baina hau beste puntan egongo duk, berriro hara joan be-

har, arroza dilistak dauden tokiaren inguruan egotea duk normalena noski, ea astirik badudan 99a iritsi baino lehen... «*noventaynueve*»a esaten diharduk, Mikel, «*noventaynueve*»a, sic, «*treintayseis*»ko ixtorioen jarraipen huts dekadentea besterik ez haiz, Mikel, konturatzen al haiz. Orgaxkari bultzaka, Monzako zirkuitoan adina maliobra eginez, han doa Mikel Zabalegi «Legumbres/Zekaleak» kartela dakusan pasillora. «*Ochentayuno*», entzun du, bizkar emanda doala, harategiko mostradore atzetik, neska gazte euskaraz noski mintzo ez denaren ahotsa. Azkar ziak ilara, pentsatu du, ebidenteki.

«Sarritan uzten zuen idazte-lan neketsua bulegoko leihotik begiratzeko», ezinezkoa zen, noski, ondoren zeto- rren deskribapen ederra hitzez hitz gogoratzea. Idazle aparta Joyce hura, alua, ahoskatu zuen bere baitan, mentalki bakarrik?, edo hasia ote zen jadanik ezpainak ere mugitzen, noizbait Marianek kezka-ahots ia dardartiz ohartarazia zion bezala? Ez, ez, lasai, idemdu zuen bere baita Mikel Zabalegik. Idazle alua Joyce hura, aparta, errepikatu zuen bere artean hitzak gogara bereiziz, baita berehala erreparatu ere egin berria zuen lapsusari. Lotsagorritu zen, kanpotik ezin igarrizko moduan, suposatzen zuen, baina lotsagorritu. Alua eta aparta adjektiboak ez baitziren noski inozenteki leku-aldagarri. Berandutxo, Mikel –amonestatu zuen bere itzala– Mediterraneo berraurkitzen hasteko. Horrekin zer adierazi nahi zuen, horixe guk geuk behintzat ez dakiguna. Eta beharbada berak ere ez. M.A.L. psikiatra «*infausta memoria*»ko harekin (sic pentsatu zuen artikulatuki) jarraitu izan balu, agian komentatuko ziokeen zein zentzu izan ote zezakeen dislexia mo-

duko hark. Eta hark, seguru asko, betikoa esango ziokeen. Baina, bah, txotxola galanta psikiatra hantuste hura. Hasteko, euskaraz ba omen zekiela-eta, zer duk-eta hitzik arruntenak ere, hala nola «bekaizkeria» esate baterako, edo «miresmena» adibidez, edo demagun perpaus minimoki kultu bat: «bekaizkeria eta miresmena txanpon beraren aurkia eta ifrentzua dira», zera, ez zuela ulertzen, eta «esaidazu erdaraz, mesedez», ba, dena jakitun ustezko ezer ezjakin bat besterik ez doktora dotore hura, «M.A.L. hura» ahoskatu zuen, baita ezpain-mugimenduz ere oraingo honetan, Mikel Zabalegik, inoiz hartaz idatzi behar bazuen, benetako pertsona haren siglak idaztean sentituko lukeen plazer morbosoa aurre-dastatuz. M.A.L., alegia. Biblikoegi. Kristauegi aukeran, baina... Ez, unean unekoari lotu behar zitzaion. Unean unekoari. Arroza, zein marka, betikoa: peineta valentzianoz eta soineko folklorikoz jantzitako emakume pare hau, bata zutik, bestea belauniko, sos marka. Inondik ere ezin zuen onartu emakumea eta gaitza hain baldarki erkatzea, hitzen ahoskidesan ergel eta zorizkoaren ondorioz, erne egon behar zuen beti, zeren, bestela, gogameneko bazter ostenduene-tatik inpentsan erasotzen baitigute edozein unetan aurrejuzku galgarrienen, ahoskatu zuen, eta pentsatu: esaldi anpuloso baina biribila, horra, astirik balu, eta Carrefourreko betiko klaustrofobia agarofobikoak eragotziko ez balio, apuntatu egingo luke libretan, a ez, kotxean utzia zuen, berdin dio. Nolanahi ere, ez zen damutzen, ez nauk damutzen, ezta pentsatu ere –egoskortu zen mentalki–, ti-pa harengana itzuli ez izanaz. Psikosi neurotikoa. Zer ote da hori. Zer tontakeria sasi-jakintsu klase da hori. Nirea,

tira, baliteke. Baina Joycerena? Joyceri psikosi neurotiko larria diagnostikatua ziotela. Zer ote dakite, baina, espezialista omen diren horiek, bo. Neurosi psikotikoa, edo psikosi neurotikoa. Ez zen gogoratzen. Zerbait esan nahiko dik, ba, nire dislexia moduko honek, arranguratu zen Mikel Zabalegi, ez artikulatuki oraingoan, bere kautan. sos, eta ilaran zain. Dublindarreneko pasarte eder hura: argiaren distiraren araberrako deskribapen jarraitua, panoramika osoa bikain emana. Horixe zuen gogoan. Indeterminatuki, noski. Mutu. Hitzez berraurkeztu ezinean. Horixe zuen txar literatura onak. Dasta utzi bai, baina ebaki gabea, era-baki gabea, hitz-jolastu zen Zabalegi bere artean. Hitz ezaren zurztasuna. *Stand by*. Ilara honetan zain, «noventaydos», psikotikoa horratik, utikan, eta zeinen ezin esan-ahaleko poza sentituko lukeen berak beste horrenbeste egin ahal baleza inoiz bere idazgelako leihotik ikusten zenari buruz, behialako patio hertsitik harantz, «noventaycinco», neurotikoa, bai zera, hi bai txatxua, doktora, zer uste dun, *stand by*, sorgortasuna, mututasuna, Carrefour, arrazoi ditek honelako azalera handiei boikota egin beharko geniekeela diotenek, boikota: hitza, leherketa: irudia, burmuineko pantailan, biak aldi berean, bata ozen bestea mutu, nola zeritzan mutil hari, osourbildarra zela uste diat, nola zuen izena, «noventaynueve», «bai, ni naiz»: oraingoan ez bide du behar bezain ozen artikulatu, errepikatu egin baitu neskak: «noventaynueve», baietz, ni naizela, «¿qué le pongo?», «libra-erdi bat, zaharretik», «zein nahiago duzu, hontatik edo hontatik?», bazakik-eta, bazakik, Koldo, ze kristo, ordenantzak eta maria santisimak, zer gabiltzak baina, «hontatik nahiago», «nola nahi dituzu,

miiak ala lodixiaguak?», «miiak, aukeran», «errealitate soziolinguistikoaren arabera, Koldo»: jurasikoa, 1988 urtea, «non gagoz, Espainian ala?»: kretazikoa, 1960 urtea, bai, aita, Espainian segitzen dugu..., ala alderantziz ote da?, kretazikoa zaharrago eta jurasikoa gazteago?, zaindu beharko huke dislexia hori, Mikel, diotsa bere buruari, bat-bateko bere betiko neke estrainoak erasanda... Ondoko hitzak, bai, gogoan zituen: «Irudi hura ikusiz bizitzaz pentsatu zuen; eta –bizitzaz pentsatzen zuen guztietan gertatzen zitzaion legez– goibeldu egin zen. Malenkonia ezti bat nagusitu zitzaion. Konturatu zen zein alferrikakoa zen patuaren aurka borrokatzea; huraxe zen adinak emandako jakituriaren zama astuna». Bai, osourbildarra zen, esan zion bere buruari astiro, eta astiro errepikatu zion bere buruari mutil haren izena, eta gaitzizena, astiro, X zeritzan, XX zeritzoten, Carrefour, produktu frantsesen kontrako boikota, 88. edo 90. urtea, esku artean lehertu zitzaion amonala, hor kanpoan, hortxe, aparkalekuan, boikota, itzal, itzali, boikota, eltxo baten zitzada elefante baten epidermisari, aski duk, hoa bestetara, Mikel, agindu zion, astiro, bere buruari, *stand by*, lotu unean unekoari, Mikel, patuaren aurka borrokatzea.

Zergatik deitzen ote zien *stand by* aldarte haiei, nekearen ondorio soil ez al ziren ba, esaera traketsa eta topikoa, ebatzi zuen, modako pinpirinkeria bat: hitz hori ahoskatu zuen mentalki, pinpirinkeria, baita berehala ohartu ere ez zekiela zehazki zer esan nahi zuen, traketsa nolana ere, stanbai, eztandai, «ez dakik ingelesez-eta, zer habil?» ahakartu zion bere buruari, Sartreren nobela urrun bateko pertsonaia baten ezintasun berbera gogora-

tuz, utikan. «Lotuta»: agian hobeto, hobekixeago behintzat, huraxe aditz aproposena beharbada mututasun edo soraiotasun moduko hura izendatzeko: «lotu» bizkaieraz, «gelditu» besteraz. Psikosi neurotikoa, neurosi psikotikoa, lasai, Mikel, unean unekoa eta gero gerokoa, lotu, lokartu, lokarritu. Bere orgaxkari helduta, okindegian lotu-gelditu zen harantzaxeago, pare bat ogi, bata *rústico* deitzen dioten hau, bestea bagette arrunta. Haraino ere iristen harategiko atzera-kontu berrasiaren erasia, «*el tres*» zihoan jadanik, eta «*el dos*» txanda-pasatua zitzaion emakume bat orduan hurbildu, berari kasu egiteko eske, mostradore atzeko neska txanda-emaileak «*lo siento, señora*»ka erantzun, ohiko eszena kostunbrista hura deskribatzea merezi ez zuela pentsatu zuen, eta urrundu egin zen bere orgaxkari bultzaka, literaturaren funtzio mimetikoak eztabaida hura espainolez transkribatzea galdatuko bailuke, «*y no estoy por la labor*» pentsatu zuen, sic, eta J.J. bastaya-cervantinoaz oroitu, euskal literatura simulakro hutsa dela dioenez, edo zioenaz, simulakroa ez dakit, konbentzionalismoa bai, pentsatu zuen, horretan arrazoi «*con armas y bagajes*» espainiarren bandora pasatua zen hark: hortxe lotu dira, esate baterako, elkarri direnak eta ez-direnak esanez dependienta bat –hispanomutantea, noski– eta bezero bat –hispanoterminala, noskiago–, azken hau hizkeragatik extremeñoa nik uste, baina xehetasun horiek zer axola zaizkio euskal idazle nahi bati, *stand by*, pertsianak itxi, ez-entzunarena egin, hura ez zen bere mundua, ordenantzak eta maria santisimak, alkate jauna, aio, Carrefour, baniak, azalera handi honetan barrena, *por la terrible estepa castellana*, «¿*tiene Travel?*», «¿*cómo?*», «*a ver si tiene la*

tarjeta Travel, para los puntos», esaiok orain cajera honi bakea behar dugula, Koldo, «*no, no, no tengo, gracias*»..., lotu, lokartu, lokarritu, *loh carritoh* izango litzateke andaluzez edo extremeñoz, ezin duk minutu pare batez espainolera jo gabe pentsatu, Mikel, euskomutantea heu ere, Mikel, hispanobihurrantea, eztan-bai. Orgaxkari bultzaka atera zen Mikel Zabalegi Igarateko Carrefourretik. Hodei ziztrin bat edo beste zeruan, *a little cloud of course*, eurikarra baina ateri. *Stand by*.

Autoko kapotan paratu zituen erosgaiak, arroza, ogia, haragia, hara: esnea ahaztu, edariak, zertarako ekarri post-it demonstrerik gero jaramonik egiten ez badiot. «Paratu» aditz nafarrak ez zuen zer ikusirik «lotu» bizkaitarrarekin noski, pentsatu zuen, eta istant berean estupido (sic) iritziz bere deformazio filologikoari, zer zen zaharrago jurasikoa ala kretazikoa, nola zen Joycerena neurosi psikotikoa ala psikosi neurotikoa, utikan, «hemerotekak kontsultatu, hemerotekak kontsultatu» agintzen zuen elkarteko buru Edortak: ez, 88.a edo 90.a izan, zer axola, ihardetsi zion bere baitatik Mikelek, oroimena, oroimen selektiboa, nork berea, horretan arrazoi zuen Joxanek Edortari kontra egiten zionean: «Dokumentazio-lana ez duk jeneroa, errezetabilburua duk bakarrik, horren aurretikoa eta horren ondotikoa duk eltzea benetan surtan jartzia», Hitzaz Mendiko etengabeko ag-indu-husketak antzetik antzara antzatik antzura eta buelta zaldiko-maldikoari behin eta berriro, gero gerokoak, Mikel, lasai –baretu nahi izan zuen bere baita–, jar ezak martxan motorra, piztu argiak, ilundu dik, urri dik argia urriak dagoeneko, pentsatu zuen irribarrez, oraingotan Jagobaz oroit: zenbat gustatzen zitzaizkion horrelako

aliterazioak-eta eskifaiako poeta eroskoari, «bion artean egin behar diagu gure historiaren kronika poetikoa, Mikel, bion artean, beste hauekin, bestela, jai zagok-eta», Jagobaren hitz eta keinu sutsuak burmuinean jirabiraka Mikeli, Carrefourreko bidegurutzean, ezker-eskuin zetozen autoei lehentasuna ematen zien bitartean, *rond point*, rotonda, biribilgune: ez, gurea luzeegia duk, ez dik funtzionatzen, bi-ri-bil-gu-ne, bost silaba, gehiegi, okupaziohizkuntzena hobeto, *rond-point* bi, rotonda hiru, Carrefourrean geldi, «*vous n'avez pas la priorité*»: dotoreago beti ere iparraldeko ele-mele melifluo gilotinoa gure pago kiskalio-tako «*ceda el paso*» lehor manintzianoa baino, pentsatu-ahoskatu zuen bolanteari esku biak berantespen-izerdiz likatuta, «baina hik zer uste duk» –erantzun nion orduan, Mikelek oroit– «zeharo jota hago, Jagoba, hamalau garelakoan ala?», «zergatik ez?, nola duk, alemanez, gure zeraren izena?» –hark oster, «*linksunabhängigkeitsbewegung*» nik atzera, eta hark: «Ederra, hi, ederra, hori duk hori hitza!: *links* ezker duk, bale, eta *bewegung* ere ulertzen diat: mugimendua, baina *unabhängen*... edo dena delako hori, ea, azal iezadak pixka bat», «zertarako, baina?», «hik azaldu, faborez, eta gero esango diat», «*un* ukazioa duk, «*abhängen*» nonbaitetik eskegita edo zintzilik egotea, «*keit*» tasuna... aski?», «baaaiiii..., zelako hitz mardula independentzia adierazteko!», «eta?», «ba, horixe, Mikel, ez al haiz jabetzen?», «ez», «ba, horiexek ditugula atako bandatik haratagoko koordenadak, gure aire-plano jausia behingoz erreskatatu eta Hobetu Leikerantz eramateko!: ezker-eskegigabetasun-higidura, horixe gure Enigma kodea, horixe gure Lore-Mapa!», sorbalda-keinua

eta buru-higidura Mikelek, Carrefourretik ber-abioan kapota bete elikagai eta autoa bete berba: «Bai, gizona, nahi duana egin ezak, baina aski diagu aitzin-solas hitzaz-menditarrez». Carrefour eta Bidegurutzea, *albarda sobre albarda*, hots, «pleonasma»: anotatu zuen mentalki Mikel Zabalegik... «*No ves que no puedo salir, tontolaba?*», erantzun *impromptusa, rond-point/rotonda versus* biribilgunearen sarreran loturik, Mikel Zabalegik, bere bolante-ari eskuak likaturik, atzetik bozina joaz aurrera joanarazi nahi duen auto-gidari berantetsiari, ni bai hispanomutantea, pentsatu du atsekabe-zimikoz, azkenean, autoen zaldiko-maldiko etengabeak zirrikitu bat bederen utzi eta berea ere biribilgunera berrabiatuz.

.....

.....

Nork geure hitzaren hauskortasuna aintzakotzat hartu beharko, Jon, horixe jaulkibide posible bakarra, Amaia. Gure mamuekin auzolanean jardutea, gure deabruekin, eta berauei datxekien ziurgabetasunarekin, adiskidetzea, beste irtenbiderik ez. Ondorio xume horretara iritsi gara Ander eta biok. Ander ere bai, alegia. Kostatu zait berau limurtzea: «Baina, Andoni» –esetsi dit luzaroan– «hemen beste gauza asko geneuzkaan idatzita». Ezetz, nik arrapostu. «Mikel Zabalegirenaz gain, zerbait aipatu beharko geniekek Jon eta Amaiari zergatik uxatu genituen elkartetik emakumeak...». «Genituen? Hituen, Ander, hituen», erantzun diot merezi bezain kopeta beltzez. «Ados: nituen, baina...». Ez dago bainarik, Ander. «Bai, azaldu beharko

genikek zertan zetzan haien “osotasunarekiko emendakina” gure “Terra Sigillata”ri... Ez dago zertan, Ander. Oso garbi dago. Gure Hitzaz Mendiko akta fundazionala traizionatzen ari ginen, puntu. Hi ados al dago, Mikel?

Mikel ez da mintzatu, ordea, ez alde ez aurka: bere txanda ez omen, nahiago izan du isilik. Ohitua dago Ander eta bion erasoetara (nireetara ere bai, adi-hizkideok, nireetara ere bai, nahiz eta ustez estimua edo begirunea bederen badiodan). Zaildua dago. Badaki ide-hazkari lehi-ahalizatea duela bere eginbeharra, etengabe zaldiko-maldiko bat-bederaren paisaia berberetara itzultzen bagara ere. Horregatik, Anderrek eta biok Hitzaz Menditik irten eta gainerako elkartekide sakabanatuen bila ekitea erabaki dugunean, berak ere, Mikelek, lagundu egin gaitu: berehala altxatu da jarlekutik, ordenatu ditu bere koaderno eta akta-orri solteak multzo txukunetan, eta gurekin batera kale-ratu da. Baina ez lehenago, horratik, besteoi beti ahazten zaigun keinu adeitsu bat egin gabe: agur esan die gure elkarte, txoko, soziedade edo dena delako honen zoko bazter horretan beti guri beha dagoen Von Sydow Zurbilari –agur, «eskerrik asko» jauna–, baita harantzago, mahaia-aren beste aldean, ilunpean gehienetan, baina egon beti hor dagoen Ekberg oparoari ere –«agur, Treviko Fontanako jainkosa eder»–: halaxe agurtu ohi du beti Mikelek, eta Anitak beti gure hizkuntzako esker-emate esaera dotoreaz erantzuten, irribarre zoragarriz: «Akordatzea ere...».

Garaia baita –irakurri dugu, Hitzaz Mendiko ezkaratzean, ezker aldeko paretan eskegita. «*Gaindi dezagun behingoz norbere buruarekiko elkarrizketa tai gabea, narzismo gero eta likitsagoa, bidea eta lurra atontzen dizkiona*

ia eldarnio ere baden burutazio bati, buru-lana oinaze bihurtzen duenari, non errealitateak ez baitira dagoeneko gizaki biziarenak, lan egiten eta bere burua egiten duenarenak, baizik eta hitz hutsak, hitz-multzo hutsalak, hitzen esanahietatik sortutako tirabira antzuak».

.....

.....

—Lagun hakit, arren –xuxurlatu diot Joxan Arrilagaren itzalari—. Goarnizio gehiena kendu diat, baina jakia ments oraindik: lur-jota nagok.

Erantzunik ez, ordea. Ez dago hemen. Ez daude hemen. Nahi dutenean datozkit. Ez nik deitu ahala. Jakin beharko nukeen. Badakit.

Huts egin du lehen pheredikiak. Hondoratu da Hitzaz Mendi Seneko Zuloan, ostera berriz. Gure Ander-Andoniren ahaleginak gorabehera.

Eta bakarrik nago, ez «Zerubiden», baizik eta, arima apartauta, «Praileaitz» deitu diodan leku laiotz, gogor, zurrun honetan, *nec ut soles dabis iocos, vae victis*: ez, Jagoba, eutsi goi-beherari, *da capo*. Segi ezak mustrakarekin: be-tor orain... noren txanda duk?

AIRE-PLANOAK

MIKELEK DU HITZA, eta lema, erabakia eta dema denona izan arren. Irakur dezagun, plazer baduzue, Jon, Amaia, hark idatziriko akta, aztergaien zerrendatik hasita, idazkari haririk gabe ideihazketarik ez baitago, dakizuen bezala:

- 3.1.- Non egiaztatzen den filosofiaren eta poesiaren arteko aliantza kordokaria.
- 3.2.- Non hitzartzen den behin-behineko hitzarmen ur-lehortarra.
- 3.3.- Non Kepa Arrastirik kale-arrasera errendi-arazi nahi gaituen.
- 3.4.- Non Edorta Orozgoitiren *philosophen weg* hackerizatzen dugun.
- 3.5.- Non Ander Elizalde bere erudizio filologikoz libertitzen gaituen.
- 3.6.- Non Edorta Orozgoitiren gutun-egia sakailatzen dugun.
- 3.7.- Non Xabier Landaluzeren marraizkiei berrekitea erabakitzen dugun.

(Imajinatzen ari naiz zuen bekain-uztaidura, Amaia, Jon, ez dut imajinatu nahi, aldiz, zuen ezpain-okerdura. Demaiogun aukera bat, dena den, axola ez bazaizue, arren).

3.1.- NON EGIAZTATZEN DEN FILOSOFIAREN ETA
POESIAREN ARTEKO ALIANTZA KORDOKARIA.

—Zer zabiltzate? Lehorrean ere badugu zer egina.

Halaxe esan die, nasara iritsi orduko, Andonik U-wort serieko *Terra Sigillata* urpekontzia sortidarako zama-estibatzen ari ziren eskifaiakideei, gaur arratsaldeko 5ak inguruan. Ahotsa ez zen haserrezkoa; ia erreguzkoa zela iruditu zaio lerrook idazten ari naizen idazkari honi. Isilik hurbildu gara beraiengana Andoni bera, Ander Elizalde eta hirurok, nahiz eta ez ikusiak izateko aparteko epaixka-espanturik gabe. Nolanahi ere, nabaria zen ez gintuztela espero, ustekabeko asaldura-keinua egin baitute Jagoba Antxustegik –Andoniren interpelazioaren hartzaile nagusiak– eta bere inguruan lanean ari ziren *Kriegsmarine*ko hiru marinel mozorrotuek –zehazki: Otto Denker, Albert Schriftsteller eta Wolfgang Spieler ziren, hitzaz-menditaron aspaldiko ezagunak hirurak ere, tripulazio osoa bezalaxe, *die beste Besatzung*–. Lehen sorpresa-unea igarota, kaxak nasa gainean utzi eta ongi-etorritzko harrera beroa egin digute oso, janari eta edari eskaintza barne. Berbaroak erakarrita, ontzi barruan zeuden gainerako kideak ere azaldu dira eta moila gainera jaitsi, hala nola Meier, Übersetzer, Hochfelsen, Dichter, eta abar, hots, hitz bitan esanda, Adler kapitaina izan ezik –ondoezik omen zegoen– beste guztiak. Baita Edorta Orozgoiti ere: bera izan da dorretatik burua atera eta irribarre zabalez agurtu gaituen azkena.

Ustekabea, bistan da, alderantzitu da. Andoni ahoa bete hitz geratu da lipar luze batez, baina Ander Elizalde, bere berba-etsiezintasun endemikoaren bulkoaz, irri-ur-

durika mintzatu da tupustean. «Hara gure Edorta Haitz-Oholdua! Ba ote nengoen ba ni, gure *pez gordoa* ezin zela urrutiegi egon!». Isilune trinkoa. Bertan beheratu dira marmarrezko diosalak. Badira, ohiturak ohitura, inoiz egin ezin diren gonbarazioak, noski. Irain hutsak direlako. Haitz-Kiel ez da Pasaia, 2006a ez da 1936a, phantasia zinetikoa ez da errealitate zinezkoa, urrian gaude baina orduan baino oparoago, galerak dira gureak eta ez galer-nak, eta, batez ere, elkarte bereko gara, ez elkarren etsai. Horiek denak, eta beste hainbat, ahakartu dizkio Andonik bere bikiari, inoizko gordinen. Desenkusatu behar izan du Anderrek. Ameto egin dio Edortak, buru-keinu amore-emalez.

Edozein izkribau hispanikok *frenéticos preparativos* klixte gezaz deskribatuko luke han ikusi duguna. Baina gu geu, ez baikara oraindik zeharo hispaniko, euskomutante baizik, zuhurrago mintzatuko gara, idazkari esku-ahuldun behar bezalako bati dagokion legez. Esan dudan bezala, kaxak ari ziren beren U-wortera sartzen eta han behean –suposatzen da– estibatzen. Elikagai arruntezkoez gain –haragi zezindua, babarrun-latak, arroz-zakuak, bar-ka, zukuak, gailetak, banana-mordoak eta laranja-zakuak, kasu honetan bai zakuak–, baziren beste kaxa batzuk, aparteko arduraz eta izerdiduraz ozta-ozta ontzi-bizkar-rreratzten ari zirenak. Nire erantzukizunen artekoa denez nasa honetan itsasoratzen nahiz lehorreratzten diren elika-gai, elekagai, erosgai, thanatosgai guztien ikuskaritza egi-tera, hurbildu naiz Jagoba Antxustegirengana eta beronen eskfaiakide eta gure hitzaz-agente den Schrifstellerenga-na eta kaxa haien edukia arakatu behar nuela esan diet.

Banekien ez ziotela nire aginduari berehalakoan men egingo, betidaniko gure arteko jurisdikzio-auzia ez baitago inola ere ebatzia, ezta hurrik eman ere. Kaxa haiek, portuan zeudenez eta oraindik hitzontziratuta gabeak, azken finen, norenak ziren, horixe gure betiko liskar-gaiaren errepikapena, jurisprudentzia eta kasuistika ororen ondolik ere bere horretan dirauena. Denok dakigun bezala, inoiz ez baitira batere zehatzak izan lehengaizko bizi-hitzaren eta *poesiaren hegoek* jausi-arazitako antzaldatuaren arteko muga-lerroak. Harrigarriro, dena den, eztabaida ez da beste hainbatetan bezain garratza suertatu. Batik bat Jagobaren eta Andoniren arteko elkarrizketa labur baten ostean hautsi-mautsiratu da auzia, tarratatu ditudan honako oharretan ikus daitekeenez:

Hutsak ez, Jagoba. Ez huke bidezko hori esatea. Ez zaudek hutsik kaxa hauek. Bada hemen hitzik. Baina *bar-kua bete berba* egiteko lain ez, inondik ere –esan du Andonik, ahots orekatu larderiatsuan, bere erhi erakuslea nasa bazterreko hiru kaxa handi haien gainera zuzenduz: «(A)Saltus Vasconum», «(Des)Ager Vasconum», «Terra Sigillata, orobat» zeukaten idatzita izenburu, zeinek zein, eta hiruretan, letra ttipiagoz, autore-ohiaren izen-deitura: *Xabier Landaluze*.

—Eta lain ez dena laineza duk –erantsi du, bere ohiko inkontinentziaz, Ander Elizalde. Uhukada batez isilarazi dugu berehala lekuko guztiok.

Xabierren «marraizkiak» zirela esanez defendatu du bere burua Jagobak, berak ez zituela gogoko –gehitu du–, berak –denok omen dakigunez– hastio dituela jaulkipen geldo goibelak, berak –«noski baino noskiago», errepika-

tu du behin eta berriro— poesia duela maite —«goiz albako zilarrezko izarniadura otso arrezko hitz uhindu amaigabeen gainean», testualki—, baina elkartasunaren izenean, hitzaz-menditarron zilbor-bestetasun amankomunaren amorekatik, Xabierren zirri-marra hatspeitu haiek ere sartu nahi zituela U-wortean, hartara, beharbada, atako bandarakoan, zenbait ardo zahar lauspeaturen gisa, harztitu, irabiatu eta gorpuztuko zirelakoan.

Ez dio kontrakar handirik egin Andonik, esan dudan bezala. Harritu gaitu haren isiltasunak. Baina batere ez haren ekintzak. Ezin ohituago gauzka-eta egin duenera. Izan ere, ez bat eta ez bi, baizik eta hiru kaxa haiek putzura bota dituenean, gutariko inork ez baitu ez zirkinik, ez protestarik, ez espanturik egin: sorbaldei gora eragin, eta gure badiaren oreka ekologikoa «hainbeste berunekin» (sic) kutsatzen ari ote ginen iruzkin umoretsua egin du, besterik ez, Jagobak berak. Eta Edortak, bere dorreta kamuflatutik, zer egingo-eta, txalotu gure Andoniren lastalibramendua. Bai, zehazki: eskuzartaka, barre-zantzoka eta «bazen garaia»ka ekin dio Edorta Orozgoitik gure «deliberamendua» (sic) zoriontzeari.

(Ondo jaso du, oro har, Mikel Zabalegik gure bi esfi kaien nasa gaineko lehen enkontruaren funtsa. Eta, esate baterako, nire haserrea ere bai. Hiru kaxa haiek, hutsaren hurrengo berunkeria iritzi, putzura bota, berehala damutu eta erraietatik masailetaraino lotsagorriturik sentitu dudana. Haserrea, etsipena, abaildura: hamaika hitz daude norberaren edo nornahiren ahalegin zapuztuaren das-ta izendatzeko, zuek hauta. «Pene-lope inozo ergela» izan ohi da, horrelakoetan, neure buruari oparitu ohi diodan

balakurik gozoena. Eta Jagobaren, eta Edortaren, eta hango eta hemengo «konpainia noble» osoaren iseka. Eraman-ezina, zinez. Zer harriturik ez, beraz, Mikel Zabalegik –elipsia ikasiko balu, hainbat hobe– Andoni naizelakoaren ahotan honelako diatriba jarri izana, nire mintzakideei mintzo:)

—Zuek ez duzue jaulkigarritasunean sinesten, mamu arraiok!

—Zuentzat narratibotasuna, *tema-trama/motivo-relato* laukote kanonikoa, ez da existitu ere egiten!

—Zuek bazterrak nahastu besterik ez dakizue egiten, poesia malguz eta filosofia zurrunez!

—Eta beti bukatzen duzue berdin, Seneko Zuloan hondoraturik, oxigenoa anoatzen, izerdi larritan, sumarinoen pelikuletako estra ziztrin halakook!...

(Aski duk, nolanahi ere, Mikel: elipsia, dobla eta fini, mila esker. Aktak, edozein aktak, ez dik zertan exhaustiboa izan beharrik. Bertan izan garenok bazakiagu zer gertatu den lehen elkhialdian. Eta gure adi-hizkide Jonek eta Amaiak ere bai, baldin honaino jarraiki bazaizkigu. Pasa hadi, beraz, bigarren puntura, arren. Konta iezaguk –elipsiz, othoi!- nola iritsi garen hautsi-mautsira bi eskifaiak, nola ilunabarreko otordu koxkorrean kamarada ere sentitu garen, kontu kontari, kantu kantari. Horretarako, nire Izen-Gabeko bi amarruen berri eman behar baduk ere:)

3.2.- NON HITZARTZEN DEN BEHIN-BEHINEKO HITZARMEN UR-LEHORTARRA.

Badakite, Jagobak, Edortak, eta *die beste* Eskifaiako konpainiak, hemengo portuak ederki asko ezagutzen dituen K.I.-ren bitakora-kaieren arabera –hala esaten dela uste dut–, goiz alban, zaratarik gabe, parafernaliarik gabe, girlanda, suziri, musika-martxa, aurreku-txistu eta mintzaldi sasi-hunkigarririk gabe egin behar direla beti ere sortidak. Eta halakoxea ari dira prestatzen, gaur, 2006ko urriaren 2 honetan, bihar egunsentirako. Ari dira, edo ari ziren behintzat, gaur arratsaldean, gu kai-mihingaineratu garenean: ohiko hika-zukak izan ditugu beraiekin, ohiko zikiratze-erritua burugabetu du Andonik hiru kaxa berunezko haiek putzuratu, luzaroan solastatu gara halere ondoren U-wortaren bizkarrean, zukutu eta zakutu ditugu makina bat kontu eta kantu, eta azkenean bai, hitzarmena egin dugu, ur-lehortarron behialako batasun hitzaz-menditarra nola-hala gogoan. Orain, arrastiriaz geroztik, Hitzaz Mendin gaude ostera berriz, dialisi makina honi este-katurik. Ez gara hitzontziratu, alegia. Ez Ander Elizalde eta biok, ezta ni neu ere, Mikel Zabalegi, idazkari normalean hain esaneko naizenau. Hitzarmena egin dugu, beraz, *die bestekoekin*. Dena kontrolpean dago –hau ere halaxe esaten dela uste dut–. Haiek atako bandara doaz, urezko aire-plano jituaren bila, Hobetu Leikerantz, eta besteok hemen lotzen gara, Hitzaz Mendin, «*Lehorreko koaderno*»ren (mailegua lizentzi bazait) buztinezko beste aire-planoari «*Terra Sigillata*»zko konplimendua ematera. Xehetasunak, geroxeago, zuen bahimenaz.

Lot-uneak hausteko, loturatik loturara igarotzeko, *pass-wort* aukera zabala dugu gure elkartean: «jaulki» ander-elizaldetarra, adibidez, akta honen orain arteko pasarte askotan aipatua; edo «*vae victis*» joxan-arrilagatarra; edo «begiok» done-hitztarra. Baina esan beharrekoa hain esangaitz denean, hobe eginbeharra zuzen eta labur burutzea. Esaldi bakar batez, ahal dela: amarruzko hitzarmena izan da gure elkarte sakabanatuko lehiakideen artekoa. Puntu. Horregatik da lotsa Andoni bere jokutria aitortzeko, eta uzten du nire idazkaritasun esku-ahuldunean eginkizuna. Gurea ez baita izan poesia, filosofia eta jaulkimenak baketzeko hitzarmena: azken honek beste biak sakailatzekoa baino. Hots, Andoni ez da fidatzen Jagobaren bidaia benturosoez. Eta bekaizkeria beltza dio Edortaren orozgaintasunari. Itxurak egin ditu, kamaraderia giroan, U-wortaren gainean. Ander Elizalde, bere narkixkeria filologikoan, *beste* Eskifaiakoak liluraturik-edo adigaldurik-edo zituen bitartean, berak, Andonik, ebatsi egin du Edortaren «*Philosophen weg*» bitakora-kaiera –hala esaten dela uste dut– *die besteko* Adler kapitainaren kamarotetik, eta luzaroan aritu zaio belarrira marmarrean *die besteko* Schrifsteller nire kolega eta gu denon agenteari: agente sekretu izena merezi ere ez duena berau, denok baitakigu hala dela. «*Schrifsteller*», izan ere...: Ander eta biok sekula ondo ahoskatzeko gauza ez diren izen noblea, ez baitakite *beste* hizkuntza, tarteka, maiz oso, jakin-ustezko plantak egin arren. Kontsonante gehiegi elkarren segidan Ander eta biontzat, hots, Andonirentzat azken finean: listuka ahoskatzen dituzte, «*schrif-stell-er*» silabak ezin banaturik. Sinpleki, gure esku-era ezpain-ohol-mutantean ahoska

dezatela aholkatu ohi diet: «Izkribaua» dei diezaiogula aurrerantzean, alegia, U-worteko *die beste* eskifaiako gure agente sekretu-ohiari, horixe baita hitz horren adiera gurean, hala nola den «Pentsalaria» *Denker*, edo «Poeta» *Dichter*, edo «Arranoa» *Adler*, edo... baina muga nadin ene akta-eginbeharrera. Ebatsi du. Andonik. Edortaren koaderno. Puntu. Idazkari soil ez banintz, itsuskeria galanta egin duela esango nuke. Baina... ezer ez. Puntu eta aparte.

Handik bueltan gentozela, kantari sumatu ditugu gure bizkar beren U-wortaren bizkarrean *die beste*-kideak. Ez zen Jagobaren betiko himnoa, mut-triku-ar aire-planoarena. Beste bat baizik. Anderri galdetu diogu haren berri, baina hark ere ezagutzen ez. «Niretzat arrotz izatea ez da mira» –komentatu du Andonik, moilako lautadan barrena gindoazela– «jakinduria axalekoa bainaiz bertso-laritze-kontuetan, eta musika-kontuetan, berriz, zeharo ezjakina, baina hik, Ander, nolatan ez dakik?»... Jakina, «gure Joxan Arrilaga bizi balitz» gisako betiko deitoreetan luzatu gara apur batez hirurok, «hark bai emango lizkigu-keela xehetasun guztiak, nork noiz non asmatua edo idatzia zen» –asperen Andonik, «eta ondorengo sei-zazpi ahapaldiak ere kantatzeko kapaz hura, deskuidatzen bazara»– Anderrek asperren. «Baina dagoena dago, eta garenak gara» –esan behar izan diet berriro idazkari soil honek, moilatik urruntzen ari ginela, Haitz-Kieleko arrastirian *Terra Sigillata* U-worteko eskifaiaren bertso zaharra durrundi:

*Aleman batek neri esana
biok geundela kafean:
Kaiser agintzen ikusiko da
aurki Parisko kortean.
Zeppelin-tzarrak bonbaz beteta
goiko hodeien artean,
milaka mina itsasoan-da
sumarinoak urpean.*

3.3.- NON KEPA ARRASTIRIK KALE-ARRASERA ERRENDI-ARAZI NAHI GAITUEN.

Ez gara berehalakoan iritsi, baina, Hitzaz Mendira. Moilatik berrehun metrora doi-doi dagoen arren. Luzaroan berandutu naiz, ni neu behintzat, Mikel Zabalegi, Kepa Arrastirirekin hizketan. Gure betiko komisaurio politikoak ez baitu batere gogoko gainerakoon liter-hartura preziosista, honela mintzatu zait:

—Nik ez diat ukatzen sortida egin behar denik. Beharrezkoa duk gure elkartearentzat itsasotik hel-tzen diren mezu zifratuen kode enigmatikoa dezifratzea...

«Hori aspalditik dezifratua zagok» pentsatu dut neure artean, baina ez diot esan, hitz-txandak nahiko ongi ikasi baitugu errespetatzen Hitzaz Mendiko dozena milaka bilera, bilkura, bazkal-afaloste eta enparatuetan, urteen eta errepikapenen poderioz. Eta jarraitu du:

—Bere aita zenak txikitan ikusi omen zuen ario-planoaren kontu horri buruz, berriz, badakik zein

den nire iritzia, Ander (Ander deitzen baitit beti Kepak, ke-hor-hor!...). Lehen Mundu Gerrako anekdota xeble bat besterik ez. Eta literatur aldetik ere ez dik zipitzik balio bere arbasoen herriko kopla horrek.

Jabetzen naiz, noski, kontakizunak *in medias res* kontatzen hastea gure ofizioan baliabide gutxi-asko onargarrria den arren, ez dela ez komeni ez lizentzi berorretaz abusatzea. Gure –hots, hitzaz-menditarron– gobernurako, agian, aski izan daitezke zehar-aipamenak. Baina gure akta honen balizko hartzaileok –Jon nahiz Amaia, gure Andonik deitzen dizuen bezala– ez duzue zertan jakin beharrik zertaz dihardugun, adibidez, Jagobaren arioplano edo aire-plano horretaz dihardugunean. Ezta zertan eza-gutu beharrik ere Kepak behera-aipatu berri duen kopla hori. Beraz, aurrera baino lehen, eta lehenik eta behin, gisa den gizalegez, oinarrizko zenbait informazio zor dizuet, ofizio hau ez baita, gero, anabasaren laudorio, anabasaren bezamen baizik.

Beraz, luzamendu gehiagorik gabe: gure Jagoba Antxustegik defendatu izan du beti, eta defendatuko, «bi arioplano haietarik» itsasora jausitakoa porturatu zutenak mut-triku-arrak izan zirela, eta ez berr-mehe-tarrak. Hura haserrarazi nahi baduzue, esaiozue ezetz, bigarren horiena izan zela balentria hura, eta gainera ez zela, berak bere phantasian amesten duen bezala, I. Mundu Gerlako Baroi Gorriarena bezalatsuko hegazkin bat izan, baizik eta, bermehetarren bertsioaren arabera, exhibizio akrobatikoak egiten ibiltzen ziren saltinbanki batzuen aparatu bat, matxura arrunt baten ondorioz jausia. Gozoa jarriko zaizue. Deprimiturik badago, isilik geratuko zaizue, buru

makur, baina, trenpu onean harrapatzen baduzue, atergabe-
beko erretolika anakronikotan luzatuko. Benetako histo-
ria bere erara moldatuz, noski: zeren eta, denok dakigu-
nez, zinezko Baroi Gorri hura, Von Richtofen-edo omen
zeritzana, Prusiako aristokrata okitu bat baitzen, ez soilik
proletargoaren gora-behar ezinbestekoaren kontzientzia-
ren usain-arrastorik txikiena ere ez zuena, baizik eta, ob-
jektiboki, beraren etsaia, Europa osoko guda-zelaiak mi-
lioika langile-bildotsen elkar-odolez uholdekatu zituzten
basa-urde kapitalista haietako baten, Kaiserren, zerbitzari
otzana. Jagobari entzunez gero, ordea, edonork pentsa le-
zake, hark Baroi Gorria aipatu orduko, Rosa Luxenbur-
gez edo, Karl Liebneckez edo, diharduela hitz-ketan. Eta
hori zergatik, galdegin dezakezue. Bada, azken finean, nik
uste, poetaxka askori gertatzen zaiona bera gertatzen
zaiolako gure Jagobari ere: hitz-kuntzaren mal-formazio
genetikoaz edo, nahastu egiten dituelako substantiboak
eta adjektiboak, horra, sinpleki. Eta nahasketa horren
gainean eraikia duelako bere phantasia zinetikoa. Eta
phantasia zinetiko errepikakor horren bultzadaz antola-
tzen dituelako bere badaezpadako bidaia benturoso guz-
tiak. Eta abar aspergarri bat, badakizue, aski da. Errealita-
tea ez baita, askok kontrakoa dioten arren, erre-ahalitatea
baino indartsuago, ez, ez, apalki bezain gotorki diot, *me-
rezi bezain kopeta beltzez* gure kide Joxan zenak Bilintx *ad
hoc* aipatuz esango zukeen bezala: ez, ez da. Horren froga
ukigarri ukaezina daukagu: Baroi Gorriarena omen zen
–baina zinez ez zen– benetako hegazkin jausi hartatik,
ber-mehe-tarrek ez baizik eta mut-triku-arrek Hobetu
Leikeko portura eramán zuten aire-plano hartako karlin-

gatik, *Bibotex* gaitzizeneko arrantzale ausartak –a, nork leukake haren bertute miresgarria: «*Barruan zer tzon, aguro zoan kontatu*»–..., hau da, barkatuko ahal diozue elipsia inondik inora menderatzen ez duen idazkari baldar honi, baina esan beharrekoa hain inportantea denean, ez al da normala hitz-totelkeria, per-paus bihurrikeria, anakoluto-bukaezinkeria? Bai, bai-ezkoan nago. Esaten niharduen, eta esaten dihardut, badugula gure esku hegazkin hura Baroi Gorriarena ez zela frogatzen duen froga, lekukotzen duen lekukoa. Eta, geroko txatal batean Anderrek emango digun berbaldiari distira aurrebatsiz bada ere, bidezko deritzot dagoeneko esateari: hegazkin frantsesa zen. Hala ageri da idatzita aireplano matxuratu, itsasgaineratu eta jitolu hartako karlingatik *Bibotex* gaitzizeneko marinel mut-triku-ar izugaitzak hartu eta gaur egun Hobetu Leikeko udaletxeko museoan ikusgai dagoen erlojuaren esferan: «*Favre-Bulle Horloger de la Marine-Propriété de l'Aviation Militaire*». Sic. Hegazkin *poilu* bat, beraz. «Akabo gure Jagobaren Baroi Gorrikeriak», pentsatu genuen denok, aldez umorez, eta moldez amorez. Baina oker geunden. Jagobak ez du huraxe *in situ* ikustera joan nahi izan, gonbidapena espresuki jaso arren. Internet deabrukeria modernoaren bidez Hobetu Ez-Leikeko lagun adeitsuak bidali zigun argazkiari berari ere apenas eman zion gainbegirada sorgor bat. «*Se non é vero, é ben trovato*», ahapekatu zuen egun hartan Jagoba Antxustegik. Eta aurrera jarraitu zuen bere aire-planoen gainean hitzaz-planoak zirri-marratzen, kon-pasez, sex-tantez, hortzak hitz-tutuz. Sinestezina. Baina egia. Zin dagit, fede damat.

—Inter-nauta izatea ez baita aski —esan du Kepak halako batean: arreta eman diot, hizkera-mota hori ez baita ohikoa berarengan, «inter-nauta: ez duk gonbarazio txarra», pentsatu dut neure artean—. Zer axola digu guri Jagobaren amets anakroniko horrek? —galdetu du segidan, errealitatearen arrasean, Kepa Arrastirik.

Ez dut erantzuten asmatu.

—Baroi Gorriaren hegazkina gure Bizkaiko Itsaso agortuan oraindik uhin-gainka omen dabilelako eldarnio horrek-eta, zer axola digu? —errepikatu du, erretorikoki, Kepak: «Horra, Andoni bezalaxe ari duk hizketan orain», pentsatu dut nik, eta berehalaxe jabetu xehetasun harrigarriaz:... «agortuan» esan du, «agortuan», hori berria da Keparengan, noiztik nahasten ditu substantiboak eta adjektiboak komisario politiko batek»... Are buru-belarriago eman diot arreta:

—Eta zer axola digu, halaber —jarraitu du, zeharo puztuta, «halaber»ka horratik!: gero eta Anderren irudiago, zinez...— haren hunkiberatasun autobiografikoak, kontatzen digunean, adibidez, ezin gehiagoan emozionatzen dela portu honen ezagutzaile onenaren U-151 poema irakurtzean, oroitzen omen delako bera ere txikitan bere aitaren eskutik behin baino gehiagotan joan izan zela moila honetantxe atrakatuta zegoen urpeko hura ikustera? —arnasa hartu du Kepak: ez gauzka ohituta, ez horixe, horren pausarik gabeko perpaus katramilatsutara.

—Zer axola digu xehetasun ezteus horrek? —biri-bildu nahi izan du bere praeteritiozko parrafada: «Ez-

teus» esan du, pentsatu dut nik, nondik ateratzen ditu hitz horiek, eta truko erretoriko horiek, hau ez da betiko Kepa, baina batez ere zergatik «ezteus», umetako U-151 ahanzi hura, orohilmenaren hondotik K.I. zuhariak birrazaleratua, ez al da, bada, funtsean, hor dagoen U-wort beraren arketipoa, edo berau haren erreplika nola-halakoa... Galdera gehiegi. Ez dagokit niri horien erantzuna. Ni, azken batean, idazkaria besterik ez bainaiz, eta ez *die besteko* tripulaziokoa hain xuxen ere, baizik eta lehorrekoa. Stop.

—Ez, Ander, ez —hasi zait, ke-hor-hor, bere ondorioak ahots trinkoz sakatzen—. Nik seguru aski ezin izango diat deus ere egin. Dagoeneko, dakian bezala, moila honetan barrena harat eta honat nabilen arima erratu bat besterik ez bainauk, legetik at, atako bandara- ezina. Baina hik, hik oraindik badezakek. Soka motzean lotu ezak gure Jagoba bihotzekoa, faborez. Eta gure Edorta buru-ohi hori ere bai, arren. Esaiek, mesedez, jadanik ez dagoela *Scapa Flow*rik, ezein ihes, ez bete ez boto, ez dela zilegi.

(Txukun jaso du bere aktan Mikel Zabalegik Kepa Arrastirerekikoa. Ez nuke beharbada hemen eten beharko haren kronika dra-matizatua. Batez ere kontutan harturik zera, oraingoan bai, oraingoan arrakasta gogoangarria erdi-etsi duela gure idazkariak: Kepa Arrastiri gurekin batera sartu da Hitzaz Mendira. Limurtu du, suspertu du: «Hire testigantza behar diagu, hire sentimendua behar diagu, hire pentsamendua behar diagu», esan omen dio, eta ondoren «*lagun hator gurekin, denok elgarrekin badugu zer egin*» kanta zahar bihotz-altxagarria buru-belarrira

xuxurlatu, halaxe dauka ohartarazia bere zirriborroan. Baita nola esan dion ere uzteko kale-arrasean barrena arima erratuen gisa ibiltzeari, eta ez lotzeko, arren, begirune osoz esanda, beste inork jadanik begiratzen ez dien ostiraleroko pankarta hotzikaragarriei, guda gotzon baltzen erdeinuzko begirada mozorrotuaren isekapean, zeren eta «*gu ez gira lotsatzen, etsaia non hasten, han da gudukatzen*», eta abar. Baina «dobra eta fini» agindu dut. Elipsiaren eskakizuna, hala behar ere. Nahiz eta Anderrek berehala parrastatu didan, bere ohiko inkontinentziaz: «Bo, bo, bo, apaizak azken hitza beti bere». Ez. Ez da hori. Ezin da hori izan. Ez dut nahi izan dadin. Ez... noan harira. Nik uste dinat, Amaia –ni baino askoz ere idazleago haitzelako zuzentzen natzain hiri espresuki–, ados hagokeela honako baieztapenarekin: errespetua zor zionagu irakurleari, gure barruari zintzotasuna bezainbat. Hitzaz Mendiko eskaratzean, sartu eta berehala, ezker paretan eskegita daukagun baina inoiz mami-hitzen ez dugun Frantz Fanonen aipu hark ere, azken batean, gauza bera zion. Eta, oraingo honetan, adibidez, Kepa Arrastirik, bere kalearrasetik, kolpe huts egiten ari garela esaten badit, nola ez, bada, aintzakotzat hartu haren esana. Hobe genukeela, berak dioenez, gure indar guztiak, gure kamerak, gure tresneriak, gure arnasak, gure ekinak eta ezinak, gure hitzak eta pitzak, sinpleki «gure inguruko pertsonen bizitzak» filmatzera zuzendu? Horixe hobe genukeela! Horretan, printzipioz, denok gauden ados, hamaika mila bider esan izan zionagu batak besteari, eta besteak batari, eta horixe zunan, azkenean xehetasunez kontatu ez badizuet ere –soilik aipatu–, gure eta hire burkide emakumeek Hi-

tzaz Mendin mahaigaineratu ziguten osotasunarekiko emendakinaren funtsa: aire-planoak alde batera utzi, barne-liskar kalapitosoak baztertu, eta arras jaulki behar genuela jaulki beharrekoa. Konforme. Baina: «“Nola” duk kontua, Kepa. Hemen, eta orain, zer egin. Horixe duk arazoa» –gaur bertan, arrastiri gautuan, Mikel Zabalegi idazkari zintzoak Kepa Arrastiri komisario minberari esan dion bezala. Horixe: lerro bakoitza delako, edo izan daitekeelako, segada bana. Ez al zain iruditzen, Amaia. Bai, arrazoi dun: baita aukera bana ere).

3.4.- NON EDORTA OROZGOITIREN *PHILOSOPHEN* WEG HACKERIZATZEN DUGUN.

Kepa eta biok inguratu garenerako, aurrea hartua ziguten Ander eta biok Hitzaz Mendirako sarreran. Gu kantari gentozen, esan bezala, «*gure odolez ta ontasunez, gure izaitzez dirade gosez*», eta beraiek, Frantz Fanonen testu sakratuaren aurrean loturik, erauki-jaulkika, ohi legez, «*elgartasunez erakuts hortzak elgarri josiz buru-gorputzak*», ozenkatu diegu Kepak eta biok, beharbada oraindik alferrik ez datekeelakoan. Edortaren aurka gaizki-esaka ari zen Ander: abandonatuak gintuela, bera gabe deus egiterik ez genuela, eta abar denontzat ezagunegi bat. Beldur hutsaren agergarri, noski, bekaizkeria bezainbateko menpekotasuna erakutsi izan baitu beti Ander hitz-lariak Edorta pitz-lariarekiko. Ezetz esan diogu beste hirurok, molde banaz baina olde batez. Poesia ustezkora lerratu izanak ez duela diletantea denik esan nahi, esan dio Andonik (eta hala balitz ere, ea bera, Ander, zer den, erne

ibiltzeko, gero, inor juzkatzerakoan, gogoan izateko, alegia, denon azpi-geruza ultrakatolikoa, gure begiko haga ikusi ez eta inoreneko lastoa salatzera ohi garamatzana). Jagobarengana joan bada, seguru asko gehien behar zue-nari laguntzeko asmoz joana datekeela, ohartarazi du, arras zentzuz, gure Kepa etorri berriak, Edortaren filoso-fiari oraindik ez baitio nonbait begirunerik galdu. Koldarra behintzat ez dela, esan diot nik: *philosophen weg* beza-lako bittegora-kaiera idatzi duen inor ezin daitekeela nire ustez koldarra izan inola ere. Eta orduan seinalatu dut Andonik golkoan gordeta zekarren koaderno. Hitzaz Mendiko eskaratzean geunden, erdi-ilunbetan, baina gu-re orkestra-zuzendari ustezkoa nola lotsagorritu den an-tzemateko nahikoa argitasun bai, bazen. Behar den ga-raian azalduko dizkigula bere jokabidearen arrazoiak, horixe esatera mugatu da gure ar-taldeburua. Eta sartu gara Hitzaz Mendira. Eta agurtu dugu Von Sydow –Ande-rrek ez, ez du inoiz ikusten–: hantxe zegoen, betiko bere izkinan, beti bezain zurbil-irribarretsu, «kaixo, Sydow» esan diot, «eskerrik asko» erantzun dit, «itxoin iguk, me-sedez, axola ez bazaik» –erantsi diot– «gure lantegi hau bukatu arte, arren», «eskerrik asko» errepikatu dit, beste hitzik ez baitaki gure hizkuntzaz, eta, batzuetan osten bes-tetan ager, han zegoen, gaur behintzat, harantzaxeago, Ek-berg jainkosa ere: hurbildu natzaio, muxu eman diot ma-sailan, «kaixo, Anita», «akordatzea ere...» erantzun dit beti bezain zoragarri, betazalak dardar, ezpainak dirdir...

Lan-mahaira eseri naizenean, urruti-hizkinez ari zen hitz-ketan Andoni. Bere adi-hizkide Amaiarekin nonbait. Ez zetozen gure oraingo eginbeharraren harira, baina jaso

ditut, ofizioaren inertziaz, haren zenbait berbaro, hala nola: «Herioari aurrez-aurre begiratzan hasten garenean, gure herioari, orduantxe hasten gaitun gizaki izaten: ez pertsona, Amaia, barka, baina ez “persona”, persona mozorroa baitun, eta aski dinagu mozorroez. «Gizaki», hire baimenarekin, edo gabe. Hi eta biok gizaki gaitun: *Menschen*, hi *Frau* eta ni *Man* izanik ere. Neurtzaile, alegia. Neurtzen dakigunak, denbora eta espazioa...». Sasi-ztul egin du Kepak, eta nik mar-mar. Konturatu dira Ander eta biok, eskerrak, *denbora eta espazioa*, horratik, *neurtzaileak*, alajaina. Bagenuen han, badugu hemen, zer, noiz, nola neurtua, badugunez. Per-pausatu du mugi-hizkorra Andonik. Zabaldu du Edorta Orozgoitiren bittegora-kaiera, kai-mihingaineko U-wortetik ebatsia. Zergatik ekarri duen, gure galde-ikurra bekain uztaituetan. Beharrezkoa zelako, haren erantzun irmoa. Ezinbestekoa, omen. «Jakin behar dugulako», esan du testualki, «zergatik utzi duen arrazoimena eta etsi duen eldarniora». Txalotu dio esaera Anderrek, baina Kepa eta biok uzkur:

—Zein da gure eginbeharra? –galdetu du, deblauki, Kepak.

—Gure bizipen propialak unibertsaltzat aurkeztu –erantzun du Andonik, katixima buruz errepikatzen duen eskolakumearen gisa, «propial-unibertsal» barne-errima kirrinkariz.

—Eta zer demontre esan nahi du horrek? –galdetu dut nik, idazkari orekatu bati dagokiokkeen baino franko haserreago, aitor dut.

—Esan nahi dik, sinpleki, Mikel, hire lanaren esanetara gaudela –erantzun du lehorreko arte-buruak.

—Nola? —nik, harrituta.

—*Saisie modifiée de la déchéance*, Mikel —erantsi du, izen-gabeko ozarkeriaz—. Hitzaz Mendira itzuli gaituk. Eta hi haiz itzultzailea. Orozgoitiren *philosophen weg* hau dezifratu behar diguk. Gau osoa diagu, egun-sentian atako bandakoei agur egitera jaitsi baino lehen.

—Baina hau hitz-triku deformatiko hutsa da! Gure buruaren, edo gure buru-ohiaren, izkribuen gaineko sai-saio sarraski-jale nardagarria!... —kontra-ribuiatu dut egin-ahal huts-ahalean.

—Zer esan nahi du «*weg*» hitzak, Zabalegi?

—«Bide», noski.

—Eta «*weh*» delakoak?

—«Kexa», «aienea», oinazezko interjekzioa.

—«*Weh*»rik gabeko «*weg*»a egin dezagun, beraz —Ander eta biok erremate, anpulosoki.

Jantzi dugu igel-arnasgailua, murgildu gara sentina ur-pekatan, lehorreratu ditugu, Hitzaz Mendiko ebakuntza-mahai gainera, bat-eria matxuratu guztiak. Bage-nekien, badakigu, solemnitatezko perpauson azpian ez dagoela jolasik jokoan, hil ala biziko dema baizik, hitz handi-osen gora-galeari ozta-ozta eutsi arren. «Zurruna da bide hau, baina halere, beharbada, urpean jalgitakoa urpetik jaulkita, kosta ahala kostatik gora, nolabaiteko behatokira eraman gaitzakeena. Ezin baitiogu uko egin, ino-la ere, orozgoitasunari» —esan digu, elkarri adore emanetz,

Andonik, nik, idazkari *traduttore* honek, egin-beharturik, Edorta Orozgoitiren orohar etsigarrien artean aztarrika ekin diodanean:

«Beldur naizelako ez dut gehiago idazten. Panikoa sentitzen dudalako: Pan jainko ez-ezagunaren beldur oihanean barrena. Eta egunak aurrera doaz, eta ene hitzontziaren iraungitze-data, hezuerian bertan irarria, horixe dut aldagaitz den izari bakarra. Pan-izua, pan-ikoa. Pan-doraren kutxa desestaltzearen beldur. Erokeria guztien ama baita. Baina beroni ere aurre egin beharko. Aukera dut. Bizitzak aukera asko eskaintzen dizkigu, etengabe. Normala da beldurra sentitzea. Gainditu egin behar, xaloki. Besterik ez. Izan ere, narzisismoa eta auto-gorrotoa txanpon beraren aurpegi biak baitira, apika». (...)

«Baina hizkuntza titare txikiegia da biziaren magma borborkaria jasotzeko, geureganatzeko. Errealitatea deritzagunaren eta gutariko “ni”txo oskoldun bakoitzaren arteko harremangarritasuna hain da des-orekatua, des-parekatua...». (...)

«Erradioaktibitate tasa erraldoiz kutsaturiko Txernobil bana bihurtzen gara, nik uste, urteen poderioan». (...)

—Orokorkeriak —ohartarazi ditut hitzazkideak, higuinez—, *Da-Seinkeriak*: aspaldikoak oso, ezagutzen ditugu... —kexatu naiz, nazkaz. Jarraitzeko agindu dit Ander eta biok.

«*Or, viser, comprendre, choisir, accéder sont des déterminations constitutives de toute question, et par là des modes d'être d'un étant déterminé, de cet étant que nous, qui questionnons, sommes nous-mêmes.*»

—Gure hizkuntzan, Zabalegi... —Andonik larderiaz.

«Alta bada, begiztatzea, ulertzea, hautatzea, heltzea, galdera ororen zedarriztapen eratzailleak dira, eta beraz, izaki jakin baten izakerak, galdetzen dugunok garen izaki honenak».

«L'être-là se comprend toujours à partir de son existence, c'est-à-dire à partir de sa possibilité d'être lui-même ou non lui-même. Ou l'être-là a choisi ses possibilités, ou il est tombé en elles, ou il a grandi avec elles. L'existence sur le mode de la reprise ou celui de l'omission ne peut être décidée que par l'être-là de chacun. La question de l'existence ne peut être résolue que dans l'exister même». (...)

—Orokorkeria zurrinak dira –iharduki naiz–, hau dena aspalditik dakigu!...

—Gure hizkuntzan, *Traduttore*... –berrero «astik»aren durundia nire buru-belarrian.

«Hor-Dena bere existentziatik ulertzen da beti, hots, bera ala ez-bera izateko duen ahalbidetik. Edo Hor-Denak bere ahalbideak hautatu ditu, edo berorietan eroria da, edo beroriekin batera hazi da. Norberaren hor-denak ez bestek erabaki dezake existentzia nola eramanez, berhar-tzearen ala huts-egitearen modura. Existentziaren auzia ezin da existentzian bertan ezik ebatzia izan». (...)

Kostatu zaio. Nire hel(p)-eskaerak arren. Baina, azkenean, erre-akzionatu du. Kepa Arrastirik, gure komisario politiko ohiak. Ea zer genbiltzan «nazi kolaborazionista» haren izkribuekin. Edortak berak ere aspaldi ahantziak zituela haren aipuak; duela gutxienez hogeita hamar urtekoa zela Edortari *Daxein* deitzen genioneko garaia. Ea zer bilatzen genuen hain geruza zaharkituan aztarrika –aurre egin dio, erronkati, Andoni buru-usteari. Honek, gero eta

zurrunago, aurrera jarraitzeko, motz eta lehor. Jarraitu dut.

«L'être de l'étant n'est pas lui-même un étant. La philosophie a fait son premier pas dans la compréhension du problème de l'être lorsqu'on a renoncé à "mithon tina diê-geîsthai", à "raconter des histoires", c'est-à-dire lorsque'on a renoncé à déterminer l'origine de l'étant comme étant par le recours à un autre étant, comme si l'être avait le caractère d'un étant possible».

Harrigarriro, oraingoan ez nau itzul-penera behartu. Kon-postura galdu gabe, lord baten euforia hotzez mintzatu da Ander eta biok omen delakoa:

—Ça-y-est: horregatik alde egin du gure elkor-tetik —esan du eta, ebidentekeria azpimarratuz, erantsi— Historiak jaulkitzeari uko egin diolako.

—Baina zergatik uko egin dio filosofiari berari? —galdegin dut nik segidan. Berez etorri da erantzuna, damutu naiz galdegin izanaz:

—Horixe nahiko huke hik, Mikel, idazkari lanari utzi ahal izateko. Baina, ez Edortarengan, ez beste inorengan, *mithosari* uko egiteak ez dik inola ere esan nahi *logosari* ere uko egiten zaionik, ez airekoari, ez urpekoari. Ez gure honako lehorreko honi ere. Lanean jarraitu behar diagu, beraz.

—Zertarako, baina? —ixurbatu naiz, eta irabiatu, eta ozpindu, idazkume temoso, langile nekoso...—. Zergatik ez onartu, besterik gabe, jadanik ezin dugula sortu, agorturik dugula asmamena, Mirabe Zurbilaren zain eta haiduru geratu besterik ez zaigula gelditzen?

—Zeren eta –baieztatu du Andonik, alde zurretik denok dakigun perpausa– hauxe baita, Hitzaz Mendiko gatazka, gaur eta hemen, gure aukera duin bakarra, gure benetako existentzia. Eta zer da benetako existentzia? –galdetu du, lord ingeles topikoaren flemma komikoz, haurrei eskolan erantzun ahobatezko aurre-jakinaren galdera egin ohi zaienean bezala.

—«*Existence authentique: une saisie modifiée de la déchéance*» –marmartu dugu beste hirurok, Edortarren «*Philosophen weg*»eko leit-motiva, buruz eta aburuz.

Ez digu betarik utzi, dena den, ohiko bidenabarretan barrena galtzeko. Lehor moztu dio jarduna Anderri, berau «filosofiaren zurrunkeriaren kontrako antidoto bakarra, halere, *mithoa* izan daiteke» bere ohiko tesia berrazaldu nahian hasi denean. Lehor larderiatu dit niri ere nire «jaskortasunaren ber-hartze eraldatua»ren itzul-pena penagarria dela, eta bilatu beharko dudala zerbait hoberik noizbait itzurtzaile izateari utzi nahi badiot. Lehor moztu dio Kepari ere, honek galderak egiteari ekin dionean: normala denez, gure komisaurioa ez baitago besteok bezain bezatua Hitzaz Mendiko lehorrean, eta jakin nahi baitzuen ea historiarik kontatu gabe nola idatz daitekeen –galdera guztiz taxuzkoa, bestalde, eta erantzun ezin zailagokoa–. Baina Andonik, bere kon-posturarik galdu gabe betiere, denoi eragotzi digu berba-aroa, berak hartu du, nabarmenki, lemen lema. «*Philosophen weg*» koadernoan nire eskuetatik kenduz, hauxe esan dit: «Pasarte hauetarako ez haugu behar, Mikel, gure

hizkuntzan zuzenean eta ezin-zuzenago emanak baitzaudek». Eta jarraian goraki irakurtzen hasi, zutik, peripatetikoki, Hitzaz Mendiko pasabide eta mahai-tarteetan barrena, Edorta Orozgoitik bere lagunaren liburutik bere kaierora transkribaturiko perpausak:

«*Hala, bada, agindu kategorikoa bakarra da eta honako hau da, zalantzarik gabe: obra ezazu bakar-bakarrik halako maximaren arabera, zeinaren bidez aldi berean nahi ahal izanen baituzu lege unibertsal bat bihur dadin*».

—Konturatzen al gara, lagunok, helburu ezinbesteko honen, ez soilik bakan, baizik eta bakar den honen edertasunaz? Etika hauxe da! Denok genekien, eta Edortak gehien, baina ahantzi zaigu, ahantz dakigun utzi diogu gure buruari, koldarkeriaz, nagikeriaz...

Ohituta gauzka Andonik bere pherediku erdiragarri hauetara: harantz eta honantz peripatekikoki pasioan hasten denean, endemas, kasu honetan bezala, Edortaren eta gu denon lagun atxiloaren hitzak glosatu nahian-eta, entzun egiten diogu, begirune itzaltsuz eta isiltasun pairakorrez, baina hori besterik ez: hots, entzun, zeren nik neuk behintzat utzi egiten baitiot haren hitzak aktan oharatarteari. «Lehen Heidegger, eta orain Kant» –pentsatu dut neure artean, *déjà vu* guztien aurreko asperdas-taz– «laster Wittgensteinen txanda» –perpauseratu dut mentalki, boligrafoarekin erhi artean jostari. Ez dakit zer gabiltzan, ez dakit zertarako nahi gaituen «*Philosophen weg*» honetatik berriro pasa-pure-arazi. Agindu kategorikoa eman dit, ordea, gure Andonik: idazten jarraitzeko, gure Aire-Planootan ere, Edortak bere «*Philosophen weg*»ean bere –eta gure– lagun gerla-atxiloak bere libu-

ruaren errotan jadanik ederki asko birrinduak dituen irinak. «Ai, gure Joxan zena hemen balego» –deitoratu dut neuk ere, derrigorrez, neure artean, halakorik egin-zale ez banaiz ere, «*surtan jartzian probatutzen da...*» melodia kantaxkatu ere bai, dialisi makinako poli-grafoari berriro dantzarazteari ekinez:

«Arrazoimenaren aginduak bi eratakoak izan daitezke: hipotetikoak (baldintzatuak) eta kategorikoak. Agindu hipotetikoak adierazten digu bakarrik «egintza bat ona dela xede posible edo erreal bati begira». Agindu kategorikoak, berriz, «berez objektiboki beharrezkoa den egintza bat irudikatuko luke, beste ezein helbururi erreferentziarik egin gabe».

Eta luzaroan jardun digu Kant zaharraren ditxosozko *Pflicht*/Eginbeharraren inguruan, Edortaren oharretatik ahurka edanez, gero eta Edortarenera antzaldagotuz, iruditu zaidanez. Hauxe omen dugula gure eginbehar bakarra –ez bageneki bezala–, hauxe idaztea orain eta hemen –ene, zenbat aldiz errepikatu diguten hauxe bera aspaldiko urteotan, Edortak lehenik, eta Andonik orain...–, «ez xede bati begira» –esan du, noski, eta zehaztu ondoren, noskiago–: «Ez hilezkortasuna erosteko, ez ospea nahiz dirua erdiesteko, ez aintzakotzat hartuak izateko». «Bai, aintzakotzat hartuak izateko, bai» –kontra egin dio Anderrrek, beti bezala–: giza kondizionearen funtsezko ezaugarri etikoa omen dela hori, horregatik erabaki genuela etikoki idaztea, toka eta noka datibo etikoak direla, je-je-je (gorrotagarria da, zinez, Ander, horrelako txiste okaztagarriak egiten dituenean), eta abar, hots, Andoni eta Anderrren arteko betiko liskar antzua. «Ezaguna, ezagunegia»

—murtxikatu dut hortzartean, eta segidan goraki: «Ni ez nago prest idazkari-lanean jarraitzeko, non eta zuek ez diozuen zeuen buruari ezartzen niri beti ezarri nahi izaten didazuen zuhurtasuna». Ziplo isildu dira. Eseri da lanera Andoni. Arren jarraitzeko eskatu dit, barka-eske ahoskeraz. Ofizioko kritika-xehetasun bat erantsiz, hori bai (harroa baita gure ke-taria, honezkero bere mezu bihurrian baliozko hartzaile omen diren Amaia eta Jon direlakoak ondotxo jabetuak diratekeenez): esan dit, mesedez, inoren testuen aipua egiten dudanean, liburuaren orrialdea ere ohartarazteko parentesi artean. Baietz erantzun diot, isilaraztearren, baina ez dakit kasu egingo ote diodan. Ni ere harroa bainaiz, jakina.

«Ohartuki eta oharkabe gizakia, banaka hartuta zein elkartean, zabuka eta noraezean bezala ibili ohi da, zirt edo zarteko erabakiak hartu behar dituela eta erabaki horietan huts egin dezakeela. Goizago edo beranduago gizakia horren jakitun eta ohartun da. Gizakiak maizegi ez daki zeri heldu, zeri lotu, nora jo; eta badakiela uste duenean ezin jakin asmatu duen edo iritziz aldatuko den. Honek guztiak adierazten du gizakia finkagarri ziurrik gabe aurkitzen dela bere existentzian, errealitatean «hondoa zapaldu» ezinik bailegoen». (J.L.A. 142 or.)

—Hau ez al da, gero, Eztebe Urgainek esaten diguna bera, edo oso antzekoa? —galdetu dut, harriturik—. Euskarrigabetasunarena, ziurgabetasunarena, begirada isil eta umilarena barneko eta kanpoko fenomeno etengabeei, eta hori dena?

Harridura desgaraikoa, nonbait, Andonik berehala bota baitit, haserre:

—Bai, baina ez duk hori orain gure eginbeharra. Hirugarren kapituluan gaudek, ez bostgarrenean. Erne, gero! Alda ditzagun hona, behingoz, koaderno honetako aipua, Edortarenak edo Edortak dakartzanak, baina ez gureak! *Mise en abîmerik* ez!

«Eginbeharra (Pflicht) da, beraz, “balio moral gorena”». (...)

«Wittgensteinek zioen etika hizkuntzaren mugen kontra borrokatzea dela. Agian zuzenago liteke esatea etika errealitatearen mugen kontra borrokatzea dela, horretarako hizkuntzaren jabe nola edo hala izan behar dugularik. Izan ere, kontzientzia etikoa eta askatasuna, ezagutza eta kultur sorkuntza bezala, giza hondogabetasunaren ondorio zuzenak dira». (J.L.A. 142-3 orr.)

—Egia esan, oso ederra duk hori –jaulki zaio Kepa Arrastiriri. Isiltzeko agindu dio, halere, Andonik, ez dakit zergatik, berarentzat testu hauek berriak baitira, beharko luke horietaz iruzkinak eta eranskinak eta eranzkinak egiteko eskubiderik izan, ixo, agindu dio halere, besteoi baino leunago, hori bai, gure lemazainak. «Ixo», esan digu denoi, «jarrai dezagun leherroz leherro».

«Ahalegindu naiz bizitzeko era hau (aipatu axioma normatiboaren araberakoa) gizakiaren bizitzeko era bat bezala aurkezten. Norbaitek galde nahi baleza: Zergatik ene jokabidearen printzipio subjektiboak orokortu behar ditut, ez orokortuz gero ez baldin badut ezein kalterik jasaten?, ez geniezaioke hauxe esan besterik: Hala eta guztiz ere, zure jokabidearen printzipio subjektiboak orokortu behar dituzu. Baina galdetzen jarrai baleza: Zergatik behar dut zerbait

nahi izan, hartarako ezein motiborik ez badiezdakezu eman?, Wittgensteinen aforismo batez, zertxobait aldaturik, erantzun niezaioke bakarrik: Hemen deskribatzea besterik ez dago, eta zera esatea: horrela da bizitza morala». (Rafael Ferber 198 or.; via J.L.A. 162 or.)

«Izan ere, hizkuntzaren artikulazio bikoitza (...) izendatze generikoan oinarritutako zeinu-sistema ere bada. (...) Gizakiaren hautemate logikoaren sistema hizkuntza da. Hizkuntza indeterminazioaren (gauza banakoak elkarrengandik bereiztezinak izango liratekeen sistema hipotetiko baten) eta hiperdeterminazioaren (gauza banako guztiek izen propio bakar eta ezberdin bana izango luketenaren zeinu-sistema hipotetikoaren) artean kokatzen da».

«Eta egile-liburu-orriaren erreferentzia, Zabalegi?», galdetu dit serio asko Andonik, «ez dakit, galdua dut», erantzun diot apur bat lotsaturik, «deskuidatzen ari haiz, zabartzen», egin dit errieta, «nahi baduzu bilatuko dut», «ez, ez diagu astirik xehetasunetarako, ondikotz: jadanik ez, galdu diagu gure *mensch*-neurtzailetasun guztia, Zabalegi, dagoeneko ez zagok astirik, segi ezak: zer dator orain? ...bai, jaso itzak Edortaren iruzkinak, bere lagun atxilo liburuaren egilearentzako gutun-egiatik:

«Bai, jauna, halaxe duk. *In medias res* sartzeko/ateratzeko daukagun tresna nagusia dugu hizkuntza, ezinbestekoa. Zera gertatzen duk, ordea: pazientzia galtzen dugula, adierazi beharraren beharrez, den baino zorrotzago izan ledin irrikatzen dugula, kamuts iritzi ohi diogula gure hizkuntza xume honi. Gure grina guztien ozeanoak hitzez-hitzekeo tantaz-tankakako alanbike estu honetatik iragazi beharra “tantalokeria” iruditzen zaiguk, haserre-

tzen gaituk geure buruarekin eta “mundu osoarekin”, baina alferrik, noski: hauxe zagok, hauxe diagu, ez gehiago, baina ezta gutxiago ere. Determinazioa hautatu behar, etengabe, in- eta hiper-determinazioen gaintik».

«Ederra Hegelen “porositate” arena. Eta ederra hor, pare bat orrialdetan, egiten duan europar filosofiaren helburu nagusiaren historiaren sintesia: Aristotelesen “porrot ohoregarri bezain ekidinezina”, Kanten eszeptizismo epistemologiko funtsezkoa, Wittgensteinen forma logikoren bidezko nolabaiteko gaindibidea...: “*Bere baitango gauzen muina (forma logikoa) adieraztezina bada ere, ez baita Wittgensteinen ustez erakustezina. Izan ere, perpausak, erakutsi (zeigt), plazaratu (wiest auf) egiten du forma logikoa. Horra iruditzearen indar transzendentala*”. Eta Hegel «munstro» arena, azken finean, materiaren porositatea...: “*materiak izpirituari (izpiritu ezagutzaileari) ikusgai edo antzemangai uzten dizkion aztarna nabariak direla medio, gauzen izanari edo substantziari nolarebait atzema-tea posible*” omen dela. Eta isomorfismoa berriro, hizkuntza (eta mintzaira/lengoaia) oro errealitatearen gaineko diskurtso analogikoa bai baita (oker ulertu ez badut): “*Materiaren porositatea inkontzientearen porositatearekin pareka daiteke, inkontzientea baita materia hutsaren (ez materia sentikorraren!) ustekabeko azal(era)pena ongienik erakusten duena*”. Korolarioki –diot nik– arte-jarduera oro, eta batez ere literatur jarduna, materiaren inkontzientean barnako iragazpenaren transkripzio perpauseratua litzateke. Horregatik kostatzen da hainbeste taxuzko ezer idaztea, alajaina, ez nauk harritzen...».

—Eta gu ere ez, gu ere ez gara harritzen —esan du, begi-zuloak neke, ahots irmo baina elbarriz, Andonik, Edorta Orozgoitiren *philosophen weg* koaderno ebatsia itxiz, bere begirada dialisi makina honetatik urrunduz—. Korolario gehiegi atera beharko genituzke leherro hauetatik. Eta nik neuk behintzat ez dut dagoeneko indarrik.

Isilunea. Gutxitan ikusi izan dut gure Andoni-ketaria horren abaildurik. Eta, halaber, horren zarpaildurik beraren biki Ander, biak zein baino zein isilago. Horrelako impaseta badakit nire eginkizuna izan ohi dela gurdia lokatsetik erauztea; erneguz, baina azken finean beti hartzen dut neure gain hitz-aurlari ofizioa. Perpausak pausatzen jarraitu dut —koaderno berririo zabalduz, noski:

«...etikaren zeregina da subjektua autonomo, burujabe, autoespresibo eta sortzaile bilakatzen laguntzea». (J.L.A. 164 or.)

«Alta, bada balio goren bat gizakiaren desirarik sakone-narekin bat egiten duena eta gizakiaren jokabidea gidatzen duena, oharkabean izan arren: balio izateko desira.(...) hots, balio izateko beharrian sakon bat, besteentzat —nor-baitentzat bereziki— norbait izatea, aintzat hartua izatea. Hori gabe, gizakiaren bizitzak ez bide du zentzurik. Eta, ohartuko garen ala ez, horixe da benetako kontua, zinezko munta duena gizakiarentzat: bizitzak zentzurik izatea, alegia. (J.L.A. 138 or.)

Eta, Ander eta Bikion isiltasunak garbi adierazten zuenez atal honetako azken hitza oraingoan ezin zitekeela apaizarena izan —bestetan ohi duen bezala—, bada, horra: nik neuk hartu dut neure esku bukaerako punttu hori,

honako idi-auskari hau inola ere bertsolari ez naizen arren. Eta nola hartu dudan? Bada, oso erraz. Ahal izan dudan errazen labur-bildu diot Kepa Arrastiriri –bera, komisaurioa izaki, ez baita batere usatua zurrun-bide hauetan barrena, birritan esan dudanez– Edorta Orozgoitiren *philosophen wegaren* muina, mamia, funtsa, porositatea, edo santa-santoruma. Ahalik eta errazen, diot, eta ahalik eta lotsagabeen, bir-diot:

—Hara, Kepa: azken batean, filosofoak eta poetak, tarteka oso gauza ederrak esaten badituzte ere, hi bezain komi-ki eta ni bezain idi-ki dituk. Bazakitek –baina baita guk ere– ez dagoela betiereko errealitate-rik forma aldakorren atzean. Ezer izatekotan, zer bat bakarrik dela segurua: «Kaixo, Von Sydow, zer moduz?». Eta, alde eta moldez, haren «Eskerrik asko»ari erantzun behar diogula. *Saisie modifiéeka*, o sea, gure U-gazaba xorrotx honek esan-araziko lidakeen bezala: hondamendiaren berraxikitze antzaldatuaren bidez, ulertzen didak zer esan nahi dudan, noski. Eta etikaren funtsa –hau latza duk, gero– ez datzala karitatean, kalitatean baizik: korapilatsua duk, korapilatusesia, bazakiat, eta nik neuk ere ez diat oso garbi ikusten nola ezkon daitezkeen, alde batetik, norbera norberatzat aintzat hartua izan nahi ata-biko hori eta –txikitan eta gaztetan hiri eta bioi eta hemengo kristo guztiari– erakutsi ziguten abnegazio kristauaren zera-ko zer hura, nork bere burua ahaztu eta ukatu beharra eta hori dena. Ez zakiat. Baina galdezka eta bilaka jarraitu beharko, ezta?: horra gakoa, beharbada. Entente”k, Kepa? Hitz-egiten segi beharra dagoela. Witt-

gestein delako horren definizioa ez zagok batere gaizki, izan ere, errealitatearen mugen kontra muturrak hautsiko baditugu ere, ko-loki-ahalki esanda *of course*. Nolanahi ere, Kant zahar hura fenomeno bat zuan, eta ez fenomenologiaz idatzi zuelako –hori gerorago-ko eskola bat izan zuan, oker ez banago–, baizik eta horixe, aparta, bikaina, haren agindu kategorikoa: *Pflicht* bakarra daukagula –ez, alemanek ez dizkitek listu-zipriztintzen bazterrak «*Pfl*» hiru kontsonante horiek elkarrekin ahoskatzean, baina bale, gurean esan dezagun–. Eginbehar bakarra, alegia, geure esperientzia ezinbestean murrizta *per se*, unibertuala izan dadin moduan burutzea eta adieraztea. Ederra duk, ez al zaik iruditzen. Ezinezkoa? Bai, baina ezinezko samarra soilik; beraz... Hauxe zuan zentzua, dena den. Hau da, gure esku-arteko espi-entzia honetara itzuliz: ez diagu idatzi behar mundua mimetizatzeke, itsasoa hondar-gaztelu batera errendiarazten saiatzea bezainbateko erokeria izango zukek hori. Hemen, J.L.A.-ren zita mardul horrek dioenez, «deskribatzea da egin daitekeen bakarra», etikoki egin daitekeen bakarra. Deskribatu. Deskribatu. «*Mithon tina diegheist-hai*»? Ixtorioak jaulki? Ba, bai! Zergatik ez?... Atzera berriz hitzaz-mendiratu egin beharko genikek gure Edorta Orozgoiti. Edo ez, beharbada, ondo zagok U-wortaren hondoan, gure Jagoba kutun-eroaren ahalda-menean. Beharbada arrazoi dik gure Andoni honek, orain isilik eta abaildurik egon arren. Nekea, seguru aski. Zurruna baituk «*Philosophen weg*» hau, lehorra, leherroa. Baina zora-garria ere bai, ala, Ke-

pa?... Dena den, eta zernahi dadin *Da-Sein*, jolas gaitetzen apur bat behinik behin, Von Sidowren onginahiaz, Ekbergen bahi-menaz. Betor mustrakara, beraz, Ander Elizalde, zeina hain usu mintzo baita debalde...

3.5.- NON ANDER ELIZALDEK BERE ERUDIZIO FILOLOGIKOZ LIBERTITZEN GAITUEN.

—Nolabait esan, hitzaz-kideok, gerla hau galdua dago, baina horrek ez du gerla osoa galdua dagoenik esan nahi, inondik ere –hasi zaigu, erronkati, Ander bere soluan. Beste hirurok nekatuegi gaude, nonbait, bainatarako, *philosophen wegen* erre-pausoaren ondorioz. Utzi diogu nahi duena esan dezan.

—Bistan da, agerian da, ezin nabariagoa da –hiru perpaus sinonimoetatik bakarra esanda aski zatekeela pentsatu dut, baina hirurok transkribatu ditut ofizioz– anabasa hutsa dela orain arteko gure ahalegina. Ez gure itsaskideak atako bandaratu dira behar adinako bermedun hitz-ontzian, ez gu, hitzazmenditar lehortarrok, dakusagu oraindik *Terra Sigillata* honentzako ildo zuzenik. Dena da ubera, dena da lorratz, bidezidor galkor eta narrats –ahoskatu du anpulosoki–. Baina horrek ez du ukatzen, inola ere, anabasa anabasi bihurtzeko daukagun aukera.–pausa-unea egin du perpausaren ondoren: badaki, normalean behintzat, ez geniokeela ameto emango bere hitz-joko gogaikarri horri, baina oraingoan isilik geratu garenez, apur bat noraezean jarraitu du hitz-totelka:

—Izan ere, bitxia baita gure «anabasa»k eta greziar *Anabasis* klasikoak duten antza... Horra, adi-hizkideok, gure entziklopedia batean nola definiturik datozen (ez noa esatera zeinetan, konkurrentziarekiko neutrala ez naizela inork esan ez dezan...) —eta beste pausa-unetxo bat egin du, zirtoari irribarre egingo geniolakooan; gu isilik, ordea; nekatuta baikau-de, oso nekatuta, Anderren kalaka ozta-ozta jasateko lain; ez da kikildu halere; sasi-eztultxo bat egin, ezta-riaren baino areago, giroaren beraren leungarri, eta jarraitu egin du:

Anabasa. *Iz. 1. Nahasketa, bereziki hondakin edo zakarrrena. 2. Istilua, ardaila...*

Anabasia. *Xenofon-en obra (K.a. IV. m.) Artaxerxes II.aren aurka Ziro Gazteak antolatutako espedizioa eta idazleak berak gidatutako Hamar mila mertzenario grekoen atzera egitea kontatzen du. Ziro Gaztea hil zuteneko batailaren deskribapena obraren atalik aipagarriena da.*

Espainolezko Sopenak, berriz, gurek ez dakarten beste definizio bat ere badakar, badakarrenez, asaldagarri samarra, nik uste, zuek zer deritozoe?:

Anábasis. *f. Med. Aumento, crecimiento; período de incremento en los procesos morbosos.*

—Harira, mesedez, Ander, harira —esan dio, ahots eroapentsuz, bere biki Andonik, amuari kosk eginez, alegia. Hobe beharrez, seguru aski...

—Bai, harira: eskerrik asko oroitarazteagatik, Premu —halaxe deitzen baitio, bidenabar derragun, bere biki nagusiari, ez dakit zergatik—. Haria zein da,

ordea? Haria da... —hasi da hiperbaton sintaktikoa klasikotuz, bere ustez inportantea den zerbait esatera doanean egin ohi duen bezala: zorroztu dut transkribagailua, erne- ez duzuela idazle izenik merezi! —antzaldatu zaio ahotsa, haserretu zaio bisaia, exorzistareneko neskabila deabru-panpindua etorri zait gogora...—. Ez, ez duzue idazle izenik merezi, idazle izateko, aurrena, hitzei errespetua zor zaielako, eta zuek ez diezue batere. Ez, ez duzue idazle izenik merezi, idazle izateko, bigarrenik, zeuen buruarengan konfiantza izan behar duzuelako, eta zuek ez duzue alerik ere. Ez, ez duzue idazle izenik merezi, idazle izateko, hirugarrenik, umildade handia behar delako, eta zuek harroputz hutsak izaki. Noiz hasi behar duzue jaulkitzen, eta ez eralgitzen?

Isilunea, ezinbestean. Kepa izan da zerbait esatera auzartu den bakarra: berak baduela periskopia (hala esan du) gure erraietatik gora, ur-gainera, igotzen laguntzeko borondate irmoa, horregatik etorri dela gurekin batera Hitzaz Mendi honetako lantegira, eta abar, baina ezerezean moteldu dira haren desenkusa seguru aski egiaziak. Nik neuk ez dut txintik atera: ide-askari naizelako, ez idazle, noski, baina, batez ere, Anderrek esan duenarekin erabat ados nagoelako. Andonik berbideratu behar izan du halako batean elkar-hilketa, tonu amoltsuz mintzo:

—Ez, Ander. Beti egiten diguk tradizio bera. Lehenik, hitzen zurrunbiloan desbideratzen gaituk, alegia eta deus ez-ka, eta gero, desbideraketa horren errua guri leporatu, zaztakada ezin bortitzagoz gure elkartea txikituz. Aski duk. Hi hemen gure esanetara

hago. Hitzen espezie-listoa haiz, besterik ez; alegia, ez gutxiago, baina ezta gehiago ere. Egin ezak heure lana, eta bakea emaiguk. Eta hire lana duk, orain eta hemen, filosofiaren bidezidorretan arnasestuka ibili ondoren franko nekatuta gaudenez, harira datozkeen datuak, informazioak, inkusio komentarioak, txertatuz, gure gogoetak eta gogamenak gogobetetzea (hik heuk, aldarte oneko hagoenean, esango hukeenez). Hau da, gure zerbitzura ari haiz, aditzen? Eta, baita ere, noski, gure balizko hartzaileenera. Esate baterako, baduk garaia, *Kalamaxen kutxariarena* azal dezaan. Bai guk, bai –batez ere– Amaiak eta Jonek, tamainan eskertuko diagu.

Aitor dut gutxitan iruditu izan zaidala horren eraginkorra gure patroiazen lema-kolpea. Anderren kritikarekin funtsean ados egoteari utzi gabe ere, arrazoia eman diot neure artean, kasu honetan, Andoniren esku-ahaltzeari. Bai, aurrera inoiz jarraitzekotan, Ander jostaria behar dugu orain, ez Ander puskaria. Eragozpen praktiko-taktiko bakarra planteatu dut: «Osorik transkribatu behar al da», izan da nire galdera, «herri-kanta mut-triku-arra?».

—Bai –erantzun dute, uni-soloan, Ander eta biok.

—Lehen Kepak planteatu duen kontrako balorazioari kasurik egin gabe, alegia?

Ez ziren oroitzen, nonbait. Kepak berak esplikatu die bere ikuspuntua: beharbada batere literatur baliorik gabeko kanta zela hura, agian ez zuela merezi... Anderrek, bere alda-arte onera ziplo itzulita –hitzen balizko balioa aipatzea bezalakorik ez, hura berroneratzeko–, disertazio luze su-tsuari ekin dio, esanez ezen ea zer uste dugun dela literatur

balioa, ea nola den posible «nork-eta zuk, Kepa» –zuka hitz egiten baitio gure elkarteko engaiatuenari– herritar langile marinel errime ausart beneragarrien josta-kopla batzuen literaturtasuna zalantzan jartzea, zela leiken gure jakintsu-ustekerixan horren itsu egotia –jatorrizko esku-ahalkian mintzo baikara denok ere muin-muineko sentimenduez, bistan da– ez konturatzeko neurrixan ezen kanta hori –hala esan du, testualki– «XX. mendeko bere pisa-ahala urretan balio duen etno-legenda epiko bat» dela, ahozko tradizioaren neo-altxor bat, 1914-18 urte inguruko aireplanoez badihardu ere, «Homeroren garaiko kanten molde berean eraikia» (sic!), inon idatzi gabea baina herri osoak buruz ahapaldiz ahapaldi belaunaldiz belaunaldi transmititua, eta herri-kanta epiko guztiek bezala –erudizioaren erudizioz, Dossier x eta Albaniako artzain-kantak ere aipatu dizkigu, oker ulertu ez badiot– mut-triku-ar kopla honek ere badihardu bertsio bikoitz bat, «sasi-bertsio inbidioso bat» –bere hitzetan–, autoretza, jatorrizkotasuna, sortzailetasuna ukatzen diona «gure herrixari» –esan du, fonetismoa enfatizatuz–: bermehetarrek berena dela esaten baitute, «gizur galanta!» –gehitu du, gero eta mut-triku-harroago. Eta, solemneki, kantari hasi zaigu, Kantari kategoriko, nik ahal bezain azkarren, takigrafiaz hitzez hitz jaso dudan hau:

Bi arioplano pasauta bat itxasora jausi (bis)
ekarri, Anjelitak ekarri, Anjelitak ekarri
Anjelitak Kosmen buxian utzi.

Kanpoko aldera begira zauan fegonerua (bis)
bultua, horra nun dauan bultua, horra nun dauan bultua
horren itxura da arioplanua.

Kostadura arrimatuta Bibotexek saltatu (bis)
saltatu, etzan asko ikaratu, etzan asko ikaratu
barruan zer tzon aguro zonan kontatu.

Debatik ta Ondarruatik erten deue jendiak (bis)
pasiatzera, guazen Mutriku aldera, guazen Mutriku aldera
han dauan arioplanua ikustera.

Andra Txikixanetik atera da jendia (bis)
pasiatzera, guazen Ibirri aldera, guazen Ibirri aldera
Juana Pipaxi pastel bana kentzera.

Juana Pipaxenian egin deue afaria (bis)
aingiria bete kazuelaria, bete kazuelaria
Kalamax zorrotz ibili kutxaria.

Konpañia kantuan da, Zumalabe begira (bis)
Kanpuan, Kalamax txixa eitten kanpuan, Kalamax txixa ei-
tten kanpuan
Hamaika ardao zonan arek barruan.

Berrogeitazortzi ordu ziran reglamentuan (bis)
eintzitian, arek e pasa zituan, arek e pasa zituan
Gustamantek artu ta eraman zonan.

ORI EGIXA DA, ORI EGIXA DA
NEUK IKUSI DET ETA
ORI EGIXA DA, ORI EGIXA DA
NEUK IKUSI DET ETA.

—Barkatu, baina hemen badira ulertzen ez ditudan gauza batzuk –esan dut, maltzur, transkripzioa amaiturik, artean Anderrek, etno-legenda epikoaren orga-asmoaz

horditurik nonbait, «Hori egixa da»lako leloa behin eta berriro errepikatzen ziharduela-. Jakina, ni ez naiz ez bertsolari, ez etnografo, ez dialektologo –autobabestu naiz, zirikada aurre-leunduz-. Baina, bat: zergatik «jausi»? Gure herrixan «amildu» esaten da, hau da: «amillu» –eta, erantzuteko zirrikiturik utzi gabe jarraitu dut esku-ahal-kiz-; bi: zergatik «afaria»?; gure herrixan afarixa esaten da, jakina; eta hiru: Kalamaxen txixa-errekia luzia izan biar zan, gero, luzia benetan, puntu horren luzeriak apur-tu eitzen ditxu-ta silaba-muga guztixak, ziero apurtu ere.

Gutxienekoa, zer erantzun didan Anderrek. Sinkretismo linguistikoa aipatu du, azpi-euskalkiz hitz edo kantu egiteak herritar gehienei eragiten omen dien lotsa edo «auto-gorrotoa» (sic) ere aipatu du, ondoriozko hiper-korrektionismoa ere bai, eta abar kalamaxero bat. «Txixa egiten» bezalako funtzio organiko naturala mut-triku-arrengan trisilaboa dela ere erakutsi nahian tematu da luzaroan, utzi diogun neurrian behintzat. Baina «jausi»ren amildu-ezari, horri ezin zion, bistan da, kontrargudio sendoz ihardetsi, eta «bah, happax legomenon bat» delako klitxe-txiklearekin baztertu du nire zalantza bihurria. Orduan esan diot nik, eta esan badiot, esan diot, «Ber-meheon bai, “jausi” esaten deue...». Zer zen hura. Jagobak berak baino ere sutsuago egin dit kontrakarra. Ea zer uste nuen, ea zer-nolako herri-leiahultasuna zen nirea, ea ber-mehe-tharoon bandora pasea nintzen, ea Jagobaren aita zenaren testigantza zuzenari uko egin behar ote nion, ea Karistiotartua ote nintzen derrepente, bi airoplanoren orde, lau ikusteko, ea ez al nekien real-politikari eusten gauzak oker doazenean, eta hamaika holako, ez ardao, baina bai

ardaila. Eta transkriba-arazi dit –Andoniren baimen liber-
ti-egarriz– ber-mehe-tarrena ere, bertsio bien arteko kon-
parazio arranditsuetan *ad libitum* ihalozkatuz:

Lau airoplano pasata, bat itzosora jausi. (bis)
Ekarri, Sebastianak ekarri, Sebastianak ekarri,
Sebastianak, Artzan enkalleta itxi.

—Demagun lau zirela –esan du Anderrek, esku-
era uni-bertsotari aseptikoan berriro–. Barkagarri di-
ra pleonasmok herri-folklorean, baina gertakari his-
torikoari dagokionez, ez ote da askoz ere ulergarriago
eta txalogarriago horrelako pieza bat –hegazkin bat!–
portu barrura sartu eta buxia bati lotzea, Arritzan en-
kalleta lagatzea baino? Horren adimen mehekoak ote
dira, zinez, ber-mehetarrak?

Egije da, egije da, neuk ikusikoa dalako.
egije da, egije da, porque lo he visto yo.

—O, gure euskomutantekeria! O, gure hezigabe-
ko mintza-era hesituaren hau-leizea! Gutxienez, Ho-
betu Leiketarrek esku-erazko sinkretismoa hautatu
zuten, ez okupazio-hizkuntzarekikoa! *No comment.*

Bermioko portuan, goizeko ordu bijetan(bis)
Ez da entzuten besterik, ez da entzuten besterik,
ez da entzuten besterik, txo! atrakaizu batela.

—Ez dago txarto pintzelada kostunbrista nimiño
hori, baina txo, non dira aingiriak, non bete kazuela-
riak, non pastel banak, non izen pro-opioen opa-aro-

tasuna, non Bibotexak eta Kalamaxak, Andra Txikixak eta Juana Pipaxak, non Zumalabeak eta Gustamantekak? Egiantzekotasuna informazio-dentsitatearekiko zuzenki proportzionala da, jaun-andreak! –deklamatu du, bere aurrean, Hitzaz Mendiko gauerdiko ilunpe ozta-ozta makina honen pantailak argizatuan, andrerik inor ere ez dagoela ahaztuta nonbait, non-eta zuzendu nahi izan ez zaion harako izkina hartan, honezkerok lo seko, egon ohi den Anitari: baina nahiko lan, Anderrek hitzak bai, baina mamuak, ez parte onekoak ez txarrekoak, ez baititu ikusten.

El aviador de Kankapur, también quería volar (bis)

Etso itxi trinkadoriek, etso itxi trinkadoriek,

etso itxi trinkadoriek, barrabaskeije ein barik.

—«Ez, ez, ez, harantzaxeagoko tribukideok» esango nieke entzuten baleude –esan digu Anderrek, bere *ex cathedra* bokazio zapuztuan gero eta tinkoango–, ez da aski «barrabaskeije» aipatzea, berau deskribatzen ez bada! Phantasia zinetikoen ere badituzte beren legeak, izango ez dituzte, ba! Alderatu, erkatu, konparatu zuen *pidgin* azpiadialektal hispanizatu hori Bibotexek hegazkinera –benetako hegazkinera, gero!– saltatzen duenean, herri-irudimen mut-trikuarrrak egiten duen deskribapen doi eta zehatzarekin... Alderik ere ez!... A, eta Kankapur deitzea Singapur-ire, tira, tira, fonetismo lokalistik ondo dagoz esan bi-danari kolorie emoteko, baia neurri baten gero, neurri baten...